

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

SOZIOLOGIA IKASTURTEA 2019/2020

**Legitimitatearen eraikuntza psikosoziala: Apustu etxeen aurkako
mugimenduak Euskal Autonomia Erkidegoan**

EGILEA: Mainer Pérez Azueta

ZUZENDARIA: Eduardo Apodaka Ostaiakoetxea

2020ko irailaren 7an

LABURPENA

Jokoa gaur egungo arazo sozial kezkarientariko bat bilakatu da. Joka aretoak auzoetan haziz doaz, hauek txirotuz eta gutxi batzuen irabazi ekonomikoak hiritarren bizitzaren aurrean ipintzen dituen eredu ekonomiko baten menpean utziz. Egoera honen aurrean, pertsona asko izan dira gizarte bazterkeria, prekaritatea eta adikzioa, beste gauza batzuen artean sortzen dituen egoera hau problematizatzeko bildu direnak. Honela, apustu etxeak XXI. mendeko lakra direla salatzen dituzten mugimendu sozialak eratu dira. Errealitate honen aurrean, ikerketa honek Euskal Autonomia Erkidegoko hiru kasu aztertuko ditu, ikuspuntu psikosozial batetik apustu etheen aurkako mugimendu sozialen legitimazio prozesua aztertzeko, arreta berezia audientzia artikulatu eta obeditzeko beharrezkoak diren faktore sozial eta psikologikoei emanez.

RESUMEN

El juego se ha convertido en uno de los problemas sociales más actuales y preocupantes. Los salones de juego crecen en los barrios, empobreciéndolos y sometiéndolos a un modelo económico que antepone la acumulación de capital de unos pocos a la vida de los ciudadanos. Ante esta situación son muchas las personas que se han unido y han problematizado esta situación que crea exclusión social, precariedad y adicción entre otras cosas, formando movimientos que denuncian que las casas de apuestas son la lacra de la sociedad del siglo XXI. Partiendo de esta realidad y centrándose en tres casos de la Comunidad Autónoma Vasca, la siguiente investigación tiene como fin estudiar el proceso de legitimación de estos movimientos desde un punto de vista psicosocial, prestando especial atención a los factores sociales y psicológicos que hacen que la audiencia se articule y obedezca.

AURKIBIDEA:

| | | |
|--------|---|----|
| 1. | SARRERA | 3 |
| 2. | TESTUINGURUA | 4 |
| 2.1. | Online jokoak | 4 |
| 2.2. | Kokapena | 6 |
| 2.3. | Jokalarien profila | 8 |
| 2.4. | Jokoaren egoera legala: Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan | 9 |
| 2.5. | Gaur egungo egoera Euskal Autonomia Erkidegoan | 11 |
| 3. | IKERKETAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA | 12 |
| 4. | MARKO TEORIKOA | 14 |
| 4.1. | Legitimitatearen kontzeptua | 14 |
| 4.2. | Legitimitate soziala gizarte mugimenduetan | 17 |
| 5. | ANALISIA: KASUEN AZTERKETA | 20 |
| 5.1. | Kasuen deskripzioa | 20 |
| 5.1.1. | Gasteizeko Judimendi auzoa | 20 |
| 5.1.2. | Azpeitia | 21 |
| 5.1.3. | Bilbo | 22 |
| 5.2. | LEGITIMAZIORAKO BIDEA: Faktore psikosozialak | 23 |
| | ■ DISKURTSOA | 23 |
| | ○ Diskurtso publikoaren testuingurua eta edukia | 24 |
| | ○ Diskurtsoaren argudiaketa | 26 |
| | ○ Identitate kolektibo baten eraketa | 30 |
| | ■ KOMUNIKAZIO ESTILOA ETA BITARTEKARIAK | 33 |
| | ○ Online: Espazio birtualetan | 34 |
| | ○ Offline: Espazio materialetan | 36 |
| | ■ SOLASKIDETZA ETA KONTZIENTZIAZIOA | 39 |
| 6. | ONDORIOAK | 41 |
| 7. | BIBLIOGRAFIA | 42 |

1. SARRERA

Ikerketa honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan zentratuz, apustu etheen aurkako herri mugimendek garatutako diskurtsoen legitimazio prozesua aztertuko da ikuspegi soziologiko eta psikosozilogiko batetik. Ikerketa honen interesa, mugimendu sozialak bermatzeko eraikitzen den legitimitate sozial hori aztertzea den heinean Euskal Herriko hiru kasu gaurkotu aukeratu dira. Izan ere, Euskal Herriko zonalde askotan joko aretoen aurkako mobilizazioak martxan jarri dira negozio hauek kontrolik gabe hazten doazelako eta klase sozialarekin eta indarrean dagoen sistema ekonomiko berarekin lotzen dute mugimenduek negozio hauen gorako joera. Azken urteetan izandako gorakadagatik eta gure inguruan hartu duen pisuagatik hautatu da orduan apustu etheen fenomeno, geroago sakonago aztertuko den bezala.

Lan honetan, jokoaren egoera eta testuinguratzea egingo da lehendabizi, arazoaren pisua ulertu ahal izateko eta horretarako, online jokoaren igoera, lokalen kokapena eta jokalariren profila era labur batean azalduko dira. Ondoren, jokoaren egoera legala zein den aztertuko da, Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan zentratuz geroago, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen egoera zein den argitzeko. Arazoa behin definitutakoan, guri interesatzen zaigun legitimitate terminoarekin zer esan nahi den argituko da lanean, autore klasiko eta garaikideen ekarpenak plazaratuz. Marko teoriko bat garatu izan da hori lantzeko, non legitimitatea kontzeptuaren definizio ezberdinak azalduko diren, errebisio bibliografiko baten bitartez.

Metodoari dagokionez, kasu azterketa egitea aukeratu da, modu sakon batean egoera edo gertakari zehatz batzuk aztertzeko eta testuinguratzeko asmoz. Beraz, ikerketa kualitatibo bat gauzatuko da, diskurtsoak eta komunikazio estiloa aztertuko direlako eta “nola” eta “zergatik” galderak planteatzen direlako. Azterketa-unitatea honela, Euskal autonomia Erkidegoko hiru leku geografiko zehatz izango dira, non joko-aretoen aurkako herri mugimenduek indar handia izan duten: Gasteizeko Judimendi auzoa, Azpeitia eta Bilbo. Hiru zonalde hauetan egondako gertakari nagusienak azpimarratuko dira eta bertan parte-hartutako aktoreen diskurtsoak, komunikazio estiloa, solaskidetza eta kontzientziazioa ikertuko dira, hau da, legitimitate soziala lortzeko beharrezkoak diren aldagai psikosozialak zeintzuk diren ikertuko dira finkatutako helburuak asetu ahal izateko.

Ikerketarekin bukatzeko, azkenengo ondorioak zeintzuk diren aurkeztuko dira, legitimitate eta autoritateari buruzko azkenengo gogoetak egiteko eta planteatutako teoria kasu praktikoekin lotzeko.

2. TESTUINGURUA

2.1. Online jokoak

Jokoak presentzia handia izan du beti kultura, gizarte eta maila sozialetan (jokuak bizitza sozialean duen presentzia pentsalari asko erakarri ditu; Aristoteles, Kant, F. Schiller... jokorik gabeko gizarte edo kultura bat existitu ez delako) eta haurtzaroan eguneroko bizitzaren parte oso handi bat da, non jokoak umea helduarorako prestatzen duen, garapena eta sozializazioa ahalbidetuz (Barroso, 2003). Gizarte bakoitzeko bereizitasunek, joko mota jakin bat ezarri dute, joko-gizarte arteko erlazioak finkatuz eta Roger Cailloisek ikertu zuen bezala (1958), gizarte batean nagusitzen diren jokoak behatuz gero, gizarte beraren fisioimia orokor bat gauzatu daiteke (Barroso, 2003). Jolas eta jokoa, gazteleraz ez bezala, oso erabilgarria den bereizketa bat egiten da Euskaraz aisialdiaren bi ekintza hauek izendatzeko orduan: “Jolasa” hitza apustu gabeko haur-jolasen kasuan aplikatzen da normalean eta aisialdian egiten den edozein jarduera edo ekintza izan daiteke, non ez den ezer jokatzeko (hitza “broma, burla y fiesta” bezala definitu da; txiste, burla eta jaia). “Jokoa” berriz, helduen joko apustudunen kasuan erabiltzen da (Etxebeste, 2002) eta klasifikazio orokor bat jarraitzen du (Roberts, Arth eta Bush, 1959): (1) Trebetasun fisikoa, (2) Estrategia eta (3) aukera (“Chance”) (1959).

Honen harira, jokoak gizarte baten isla direla kontuan izanda, ausazko jokoen egoera orokorra aztertuko dugu (“jokoa” ariketa arautuari erreferentzia eginez, non irabazle bat edo gehiago dagoen, zerbait jokatzeko den), azkenengo honen zaria, ausiaren eta zortearen eskuetan egonda (modu total edo oso handi batean; Barroso, 2003). Gaur egun ezagunenak diren ausazko joko moten artean, kirol apustuak dira bezero gehien erakartzen dituenak, online kasinoak bigarren postu batean utziz, eta horrela erakutsi izan du EGBAk (European Gaming and Betting Association) online bidezko jokuen inguruan emandako datuekin (2019): European, online bidezko joku arrakastatsuen kirol apustuak direla argitaratu du, %42,5 batekin eta horren atzetik %32,4ko zifrarekin, kasinoak ditugu; gero loteria dator %12,6 batekin, pokerra %5 batekin; bingoa %4,3rekin eta beste motatako jokuek %3,2 zifra dute. Online bidezko ausazko jokuen arrakasta honek joku aretoen eta online kasinoen arteko lehiaren gorakada ekarri du. Geroz eta gehiago hazten doan merkatu hau, mundu osoko fenomeno bilakatu da eta honako herrialde hauek dira ausazko jokuetan hiritarren parte-hartze indize altuena dutenak: Australia, Singapur, Irlanda, Kanada, Finlandia, Italia, Hong Kong, Norvegia, Grezia eta Espainia, ordena horretan (Ruiz, 2019). Azken bost herrialde hauetan, ausazko jokuek eta kirol apustuek erabiltzaile gehiago lortu dituzte online jolasteko aukera dagoenetik eta online jokalaria, areto fisikoetan daudenak baino gehiago dira. Modu honetan, European, 12 milioi pertsona inguruk kontu aktibo bat dute EGBaren (European Gaming and Betting Association) kide diren enpresekin, Europako populazioaren %2,4-a alegia (EGBA, 2019). Espainian, 2018. urtean, online bidezko kirol apustuek miloi eta erdi jokalaria zituzten eta 2019. urtearen hasieran jada zifra horiek %29 igo ziren Jokuaren antolamendu orokorrak (DGOJ) emandako datuen arabera. Nabarmenezkoa da 2012 urtean Espainian jokuaren lege berria aplikatu zenetik, internet bidezko jokuak gorantz

egin duela. Izan ere, lokal hauek izan duten ugaritzeagatik, herrialdeek haien juridikzioa moldatu behar izan dute haien jarraitzaileen segurtasuna bermatzeko.

Online apustuen gorakadarekin batera lokal fisikoek ere gorantz egin dute; 2016. urtetik 2017. urtera %11 hazi ziren. Hala ere, jokuak beherakada bat izan zuen krisi garaian eta %40 bat jaitsi egin zen 2007 eta 2014 urte bitartean gero 2017. urtean berriro ere hazteko (Delle, 2019). Nahiz eta sektoreak hazkundera izan, 2018. urtean izandako irabaziak, 2008. urteko irabaziak baino %20 txikiagoak izan ziren (Sánchez, 2019). Krisialdian bingo eta makina txanponjaleek izandako beherakada hori, online apustuek eta jokurako lokal fisikoek hobetu dute eta haien gorakada geroz eta nabarmenagoa izan da. Madrilen esate baterako, 2016. urtean 328 joko-areto zeuden eta 2017. urtean jada kopurua 385-ekoa zen, 57 lokal gehiago ireki ziren urte bateko epean. Apusturako lokal espezifikoaren gorakada bestalde, azkarragoa dela esan daiteke, 2013. urtetik 47 izatetik, 2017. urtean 190 izatera igaro delako.

1. TAULA

| JOKUARENTZAKO ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA MADRILGO ERKIDEGOAN | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|------|------|------|------|------|
| KASINOAK | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| BINGO ARETOAK | 48 | 45 | 46 | 43 | 46 |
| JOKO-ARETOAK | 257 | 270 | 295 | 328 | 385 |
| APUSTURAKO LOKALAK | 47 | 76 | 114 | 153 | 190 |

Iturria: Comunidad de Madrid, moldatua

Online apustuen sektorea beraz, era ikaragarri batean hazi da azken urte hauetan baina honekin batera, bestelako joku mota batzuen beherakada ere gertatu da eta lehen zuten popularitatea galduz joan dira. Badirudi kontsumoa jokuaeren sektore batetik bestera mugitu dela, jokuaeren merkatua azken urte hauetan zeharo aldatuz, kasino eta bingo artetoen mantentze edo beherakadan ikusi daitekeen bezala. Online bidez jokatzeko aukera hori arrakasta azaltzeko faktore oso adierazgarria da, eta online bidezko jokuen eta joku tradizionalen arteko bereizketa geroz eta ikusgarriagoa da. Euskadin, bingoaren eskaintzak adibidez, aldaketa handia jasan du 2012. urtean Bingo elektronikoaren araudia aplikatu zenetik eta geroago, 2014. urtean e-plus bingoaren araudia atera zenean. Hau honela izanda, Euskadin bi bingo mota hauek, bingo elektronikoak eta e-plus bingoak, bingo tradizionala ordezkatu dute Eusko Jaurlaritzak argitaratutako segurtasun sailaren datuen arabera. Euskadin, bingoak %3,43ko jaitsiera bat izan zuen urte bakoitzeko 2007. urtetik 2014. urtera arteko denbora tartean eta estatu mailan joera hau errepikatu egiten da ere. Bingo tradizionalak beherakada handia izan duela esan beharra dago, jokatzeko 142 milioi euro izatetik (2006), 69 milioi euro izatera (2012) igaro delako. Paraleluki, bingo elektronikoak gorakada izan du urte horietan (Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, 2015).

Horrez gain, online jokuen sektorera bideratutako publizitatean erabilitako diru kopurua 2013. urtetik 2019. urtera arte ere izugarri hazi da Kontsumoaren Ministerioak esakinitako datuen arabera. Publizitatearen datuak erreparatuz gero, 2013. urtean 68 milioi euro erabili

zirela nabarmendu dezakegu eta zifra horiek gorantz doaz 2016. urte arte, non milioiak 113-ra igotzen diren gero 2017. urtean pixka bat jaisteko (103 milioiko gastua izanda). Jaitsiera hori eta gero ordea, igoera oso garbia egin da sektorean inbertitutako publizitatean eta 2018. urtea amaitu arte, 170 milioiko gastua egin zen publizitatean. Gainera, kirolaren munduak kirol apustuak zuritzen ditu, kirol prentsan, futbol karruseletan eta kirolariek beraien jokua iragartzen dutelako, haien irudia iragarkietan erakutsiz (Pascual eta Grasso, 2019).

Autonomia erkidego bakoitzean, apustu eta jokurako lokalak era ezberdin batean erregulatuta daude. Hori dela eta, Espainiako bi hiri handi hauetan, Bartzelona eta Madril, apustu eta jokurako lokalen kopurua nahiko ezberdina izan da. Izan ere, Katalunian 2004. urtetik izaera honetako lokalen arteko distantziak erregulatu ditu eta lokal batetik bestera kilometro bateko distantzia egotea arautu du (Peinado eta Catalán, 2019). Madrilen aldiz, era libre batean eman izan da lokal hauen hazkundera eta mugarik gabe hedatu dira (2019. urteko maiatzean argitaratutako dekretua arte). Arrazoi horregatik, Espainiako kapitalak Bartzelonak baino zortzi aldiz lokal gehiago ditu. “Federación Regional de Asociaciones Vecinales de Madrid” erakundearen izenean eta “Dadasign”-en laguntzarekin Vicente Pérez Quintanak eraturako informe baten arabera (2019), Madrilen jokurako 400 lokal zeuden txosten hori argiratu zen urtean. Aipatzekoa da lokal hauen agerpena, errenta baxuagoak dituzten auzoetan gertatu izan dela: Bravo Murillo kaleak 17 lokal zituen 2019. urtean; Alcalá, 15; Marcelo Usera, 12; eta General Ricardos, 10. Modu honetan, Carabanchelen eta Puente Vallecasen 48 eta 44 lokal zeuden bitartean, errenta altuko Retiro edo Moncloa-Aravaca distrituetan lau edo sei lokal zenbatu ziren soilik (Peinado eta Catalán, 2019).

2.2. Kokapena

Lokal hauen kokapenari dagokionez orduan, eragin zuzena dute aldagai askok eta “Federación Regional de Asociaciones Vecinales de Madrid” erakundeak ateratako informea joera hori aztertu egiten du Madrilen. Txosten horretan, hainbat aldagai aukeratzen dituzte lokalen banaketa era adierazgarri batean azaltzeko, haien arteko harremanak ikertuz: zonalde komertzialak, auzoko batz besteko errenta, langabezia tasa, hezkuntza maila, auzoen distantzia edo kokapena, populazioa, dentsitatea, gazte kopurua, pertsona nagusien kopurua, azterritarren kopurua eta etxebizitzaren prezioa dira (Pérez, 2019). Nahiz eta aldagai hauen eragina aztertu, estatistikoki guztiak ez dira izan erabat adierazgarriak edo pisutsuak eta kasu batzuetan ez dute indar nahikorik joera hori estatistikoki azaltzerako orduan. Eragin handiena izan dutenak zeintzuk diren ikusiko dugu, txostea errefrentziatuta izanda:

Zonalde komertzialak aztertzerako orduan, esan beharra dago txostenean ateratako emaitzen arabera, jokurako lokalen kontzentrazioa izaera komertziala eta komunikazio ona duten kale nahiz zonaldeetan gertatzen dela gehienetan, publiko ugari biltzen den lekuetan. Horregatik, kale nagusietan, garraiobide ezberdinen geltokietatik gertu (aireportuetan izan ezik), zentro komertzial handietatik hurbil edota elikadura galerietatik dauden zonaldeetan ikusi daitezke jokurako lokalak. Joku aretoak kudeaketa pribatua duten negozioak diren neurrian, haien lokalizazio estrategiak bi indarrei erantzuten diotela esaten da txostenean: eskaera aktual eta potentzialari eta inplementazioaren kosteen murrizketari. Horretaz gain,

lokalen kokapen eta banaketa azaltzeko bestelako aldagaiak ere badaude eta haien artean, aurrean azaldu bezala, auzoen edo kaleen batz besteko errenta dugu. Auzoen errenta eta lokalen kopurua gurutzatzean, errenta mailaren media gainditzen duten auzoetan joku aretorik ez daudela edo 1 edo 2 bakarrik daudela argitaratu zuen erakundeak txostenean, herraminta estatistikoak erabiliz. Beste alde batetik, errenta maila baxuagoa (batz bestekoaren azpitik) duten auzoek, 3 lokal baino gehiago dituztela behatu izan da nahiz eta salbuespenen bat egon. Auzoetan dagoen langabezia tasa totala, lokal hauen agerpenarekin harremanetan jarri den aldagaia da ere; auzo bakoitzean erregistratutako langabeziaren proportzioa, 16 urte edo gehiagoko populazioaren gainean (aktibo zein inaktibo). Datu estatistikoaren arabera, langabezi intentsitate baxuagoa duten auzoek, jokurako areto gutxiago izatearen hipotesia betetzen da. Langabezia tasa handia duten auzoetako pertsonak, denbora libre gehiago izatea estimatzen da eta beharrian ekonomiko handiagoa izango dute, honela, dirua erraz eta azkar lortzeko itxaropen faltsu hori sortuko zaie. Hezkuntza mailaren inguruan, 25 urte edo gehiagoko pertsona analfabetoak, ikasketarik gabeak edo lehen hezkuntzadunak soilik zenbat ziren auzo bakoitzean aztertuz, ikusi daiteke ikasketa maila altuagoa duten populazioaren auzoetan, areto gutxiago daudela, hau da, estatus sozialaren arabera banaketa bat egon daitekeela. Hala ere, aldagai guztien indarra ez da totala, eta askotan salbuespenak edo kontrako kasuak daude, elkarreraginean dauden aldagai asko daudelako, eta guztiek ez dutelako indar berdina izango. Gazteen eta pertsona nagusien presentziak ez dute joera jakin bat markatzen baina atzerritarren kopuruak berriz, lokalen kopuruarekin lotura garbia duela argitaratu izan dute txostenean. Zenbat eta atzerritar gehiago egon, geroz eta lokal gehiago daude, eta alderantziz. Hortaz, lokal gutxi edo lokalik ez duten auzo gehienek, atzerritar gutxi dituzte, 7 lokal edo gehiago dituzten auzoek immigrazio tasa altuak dituzten bitartean.

Orokorrean, lokal gehiago dituzten auzoak, tamaina handi edo ertainekoak dira (biztanleriari dagokionez), dentsitate handikoak. Hori gertatu daiteke joku aretoek zonalde urbanismo sareak bilatzen dituztelako, jarduera handiko zonaldeak. Horretaz aparte, areto hauek lokalizazioa merkea den lekuetan kokatzen direla ondorioztatu dute txostenean, eta aldi berean, bertan bizitzen den biztanleriak ahalmen ekonomiko apala izan ohi du, estatus sozial baxuagoa.

Lokalizazioarekin bukatzeko, lokal hauek ikastetxeekiko duten gerutasunaren problematika dugu. Azaroaren 30. eguneko 2006/106 Dekretuaren arabera, "apusturako lokal zehatz baten funtzionamendurako baimena ez da emango lokala ikastetxe batetik 100 metro baino gutxiagora baldin badago, adindunen irakaskuntza zentroen salbuespenarekin". Hala eta guztiz ere, Madrilgo Erkidegoko Gobernuaren 42/2019 Dekretuak, lokal horiek legislazio berria egokitzeko 10 urteko luzamendua ematen du. Gauzak horrela izanda, "Federación Regional de Asociaciones Vecinales de Madrid" erakundeak, 61 apustu etxe lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetatik 100 metro baino gutxiagora zeudela salatu zuen (2019). Horretaz gain, distantzia 100 metro izan beharrean 500 metrokoa balitz, dozena bat lokal bakarrik egongo zirela estimatzen dute batz beste, lokal gehienak 500 metro baino gertuago daudelako. Gainera, behin 100 metroak gainditzen direnean, lokalen agerpena oso azkar hazten da; lokalen %10 institutu edo ikastetxeetatik 100 metro baino gutxiagora baldin badaude, %25-era igotzen da kopurua 150 metro betetzen direnean eta %42 lokal daude distantzia 200 metrora igotzen denean batz beste. Honekin, lokalen erdia

baino gehiago ikastetxeetatik 3 minutura daudela adierazi zuten “Federación Regional de Asociaciones Vecinales de Madrid” erakundetik.

Madril ez da isolatutako kasu bat, beste komunitate batzuetan, ikastetxeetatik aldendu beharreko metro minimo horiek igotzea eskatzen dute ere eta Gasteizen esaterako, lokalak osasun eta hezkuntza zentroetatik 300 metrotara egotea eskatzen dute (Gatón, 2019), gasteizko ikastetxe askok jokurako areto bat hurbil bait dute. Izan ere, Gaztela eta Leon, Asturias eta Katalunian ez bezala, Euskadin ez da existitzen ikastetxeetatik gertu (lehen edo bigarren hezkuntza) joku areto edo apustueterako lokal baten irekiera debekatzen duen arau zehatzik (Diario Vasco, 2019ko azaroak1).

2.3. Jokalarien profila

Gazteen babesaren inguruko datu hauek kezkarriak dira ausazko jokuak 16 eta 17 urte bitartean dituzten nerabeen artean oso arruntak direla jakinda (Chóliz eta Lamas, 2017). Ausazko jokuetan aritzen diren pertsonen dagokienez, “Federación Española de Jugadores de Azar Rehabilitados” (Fejar) federaziotik, profilaren aldaketa modu azkar batean gertatzen dagoela adierazi dute (González, 2019). Orain dela urte batzuk, jokuarekiko menpekotasuna zuen pertsona, 35 eta 45 urte bitartean zegoen, baina geroz eta gazte gehiago heltzen dira Fejar bezalako elkarteetara, 18 eta 25 urte bitartean daudenak. Izan ere, Espainian online apustuak egiten dituzten %83,46-a 18 eta 45 urte bitartean dago eta jokalarien kopuru handiena duen adin tartea 26 urtetik 35 urtera doana da, %34,41 batekin (DGOJ, 2018). Adinaren aldaketa horren arrazoiatariko bat, teknologia berrien erabilera izan daiteke, berehalakotasuna, makina txanplonjaleetatik online bidezko apustuetera igaro delako jokalaria. Gainera, Jokuaren antolamendu orokorren arabera (DGOJ), hazkunde handiena jasan duen adin tartea 18 eta 25-ekoa da (%12,57 bat igo da 2017. urtetik), 65 urte baino nagusiagoen presentzia jaisten doan bitartean (%25,74 jaitsi).

Horrez gain, jokalaria profila nagusiki maskulinoa dela esan behar da. 2018. urtean Jokuaren antolamendu orokorrak eskaini zituen datuen arabera, jokalarien %83,25 gizonezkoak dira, %16,75 emakumezkoak izanda. Lehen esan bezala, lokalak immigrazio tasa altua dagoen auzoetan kokatzen direnez, migranteen presentzia altua izaten da ere eta immigranteen %12,5-ak, egunero edo astean sarritan jolasten duela adierazi du (Cases, Gómez, Gusano eta Lalanda, 2018). Antonio Ferrández “Asociación Terapéutica del Juego” (Atej) asoziazioiko psikologoak, bertara heltzen diren pertsonak ahalmen ekonomiko ertaina dutela dio baina azken denboraldian heltzen diren gazteak maila baxua dutela azaldu izan du. Horretaz gain, bizi baldintza prekarioak dituzten immigranteak ere doazela dio, haien inguruan gastu asko dituztenak (Ordóñez, 2018).

Hortaz, orokorrean, diru-sarrera maila baxua edo ertaina duten pertsonak izaten dira. Bestalde, joku patologikoan erortzeko eragileak egon daitezke, hala nola, lagun edo familiako baten heriotza (kasuen %53 inguru), arazo ekonomikoak (%43) edo etxebizitza aldatzea (%34) (Pascual eta Grasso, 2019).

2.4. Jokuaren egoera legala: Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan

Espainian jokuak izan duen ibilbide legala aztertuko da atal honetan. Hala ere, aztertu nahi den objektua azaltzeko esanguratsuak diren lege eta datak azpimarratuko dira soilik, nahiz eta jokuaren erregulazioaren historia osoa korapilatsuagoa eta luzeagoa izan (Estatuko loteriak, kasinoak, bingoak... beharrezkoak direnean bakarrik aipatuko dira, sakondu gabe).

Espainia, Frantzia, Italia eta Erresuma batuarekin batera, industria hau normalizatzen lehenenatariko herrialdea izan da. Jokuaren legalizazioa gertatu zenetik, honen gorakada ikusgarria izan da, azken urteetan hazkunde handienetarikoa duen negozioaren sektorea izanik. Ausazko jokua eta apustuak, 1977. urteko otsailean despenalizatu ziren Espainian Errege-dekretu baten bidez. Modu horretan, jada legeztatuta zeuden jokuak (Lotería Nacionala, “Apuestas mutuas deportivo-benéficas -la Quiniela-” eta ONCE-ko zozketak) kasinoetan, jolas-makina eta bingo saloietan ahalbidetu ziren (“Lotería Primitiva”-ren lehenengo zozketa 1763. urtean izan zen arren, 1862. urtean alde batera utzi zuen Gobernuak baina, 1985. urtean errekuperatu zen). 1977. urteko dekretu honekin, Loteriaren, kirol apostuen eta ONCE zozketen erregulazioa Estatuaren eginkizuna izango zen, kasinoak, jokuak eta apustuak autonomia erkidegoen eskuetan geratzen ziren bitartean (“Apuestas Mutuas Deportivas Benéficas” salbuespenarekin). Estatuaren eta autonomia erkidegoen banaketa hori, 1978ko Espainiako Konstituzioaren 2. Artikuluak zehazten du (Espainiako Estatuaren banaketa administratiboa), non lurralde edo eskualdeen autonomia bermatzen den. Hala eta guztiz ere, 1977. urteko arau honek gabezia asko zituen: aplikaziorako eremuaren indeterminazioa, baimenduta zeuden establezimendu motak, baimen motak, antolaketa eta praktikaren muga eta debekuak, erregimen zigortzaileak... (Hernández, 1996). Otsaileko dekretua eta gero, martxoan beste dekretu bat egin zen, aurrekoa osatzeko eta marko global batean aplikatzeko. Beranduago, 1978. urteko urrian, beste dekretu bat atera zen, non aurrekoaren zenbait puntu berrikusten eta proposatzen ziren. Geroago, 1981. urtean, gobernuak arrakasta handiak izango zuten makina txanponjale eta antzeko jokuak legalizatu zituen eta 2008. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan joku makinenzako 700 baimen onartu zitzaizen Kirolbet, Retabet eta Codere enpresei.

Esan beharra dago Espainiako konstituzioak, lurraldearen antolaketa eta banaketa udalerrri, probintzia eta komunitate autonomoetan bermatzen zuela baina joku eta apostuak noren esku dauden ez zuela zehazten (titularra nor den). Urte askotan zehar, apustuaren negozioa Espainian libreki aritu izan da, herrialdean apustuaren jardura erregulatuko zuen marko legal bat existitzen ez zelako. Momentu horretan apustu etxeek ez zuten herrialdean zergarik ordaintzen eta ondorioz, bezeroek ez zuten segurtasun nahiz babesik dirua inbertitzaileko orduan. Joku eta apustuaren etxeak hutsune legal batean zueden, linbo juridiko batean. Honela, 2011. urtean Jokuaren Erregulazioaren Legea atera zen eta lehenengo aldiz Espainian, esparru nazionalerako internet bidezko edota online jokuak erregulatu ziren. Lege honek Estatu mailako loteria jokuen erregulazioak barnebildu zituen ere (honen kudeaketa izaera publikodun bi antolatzaileen esku zegoen, SELAE eta la ONCE). Urte horretan beran, Jokuaren antolamendu orokorra (“Dirección General de Ordenación del Juego”, DGOJ), sortu zen. Honek, erregulazio, autorizazio, gainbegiratze eta kontrol funtzioak ditu eta kasua emanaz gero, erregimen zigortzailea ezarri dezake Estatu mailako online joku alorrean. Estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko koordinazio eta kolaborazio hobea lortzeko

asmoz, 2011. urtean Jokuaren Politiken kontseilua (“Consejo de Política del Juego”) sortu zen eta koordinazio organo honek jokuan konpetentzia duten administrazioen parte-hartzea bermatzen zuen. Jokuaren Erregulazioaren Legearekin batera, apustu etxe ilegalak Espainiatik desagertu ziren. Legeak, enpresei Espainian erregistratzen eta fakturatzen behartu zituen, modu legal batean jarduteko lizentzia izanda.

2012. urteko ekainean, jokuaren lege berria aplikatu zen Espainian eta lizentziadun lehenengo kasinoak operatzen hasi ziren (lizentziadun enpresek “Juego seguro” logotipoa eramatera behartuta daude haien webgunean). Gainera, online jokua Espainiako Gobernuak erregulatzen du 2012ko ekainaren 5etik eta online jokuaren jarduerak honela bananduta daude: bingo, póker, kirol apustuak eta kasinoak. Momentu honetatik aurrera, jokua, Jokuaren antolamendu orokorrak (DGOJ) erregulatu, gainbegiratu eta kontrolatuko du. Joku legalaren abantailak, adin gabeko pertsonen sarreraren debekua, joku zintzoa bermatzea -tranpa edota iruzur gabe-, kontsumitzaile/jokalari emandako babesa, erreklamatzeko aukera, ordaintzerako eta kobratzerako orduan fidagarritasuna, jokalariaren datuen babesa izango lirateke. Urte honetatik aurrera, Jokuaren Erregulazioaren Legea aplikatzearekin batera, kirol apustu etheen hazkunde adierazgarria gertatu da Espainian.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2016ko uztailean jokuaren arautegi orokor bat baietsi zen. Bertan, mota guztietako jokuen aspektu orokorrak (joku arduraduna sustatzea, jokuarentzako lokalak, publizitatea...) eta modalitate bakoitzaren araudi espezifikoak erregulatzen ziren.

2018. urteko urrian, Jokuaren Euskal Behatokia sortu zen. Euskal Autonomia Erkidegoaren konpetentzia eskusiboak dira kasinoak, jokuak eta apostuak (“Apuestas Mutuas Deportivas Benéficas” izan ezik). Erantzukizun honen aurrean beharrezkoa izan da euskal jokuaren sektore ekonomikoari buruzko datu nahiz informazioak jasotzeko sistema bat ezartzea; alde batetik osatzen duten enpresak; joku motak; salmenten tamaina; inbertsioak...etab zeintzuk diren jakiteko. Berdina gertatzen da bestalde jokuen eta haien antolaketaren ezaugarriei dagokienez; partida bakoitzeko prezioa; diru-sarrera fiskalak eta biztanle bakoitzeko kostua... zein den jakin beharra dago. Horretaz gain, jokalarien profila zein den ezagutu behar da (generoa, adina, ikasketa maila, maiztasuna, gastuak, kexak...). Azkenik, hiritarrek jokuarekiko duten pertzepzioa, publizitateari buruzko iritzia edo joku patologikoaren neurketa beste gauza batzuen artean zein den ulertu beharra dago. Behar horiek asetzeko sortu zen behatokia, datu horiek kodifikatu, klasifikatu eta kategorizatzeke, datuak ikertu eta jokuari buruzko politikak ebaluatzeke eta sektoreak etorkizunean izango dituen tendentziak ikertzeke. Honen helburua, datu base objektibo eta egiaztagarriak izatea eta honela, jokuaren politika publikoak errealitatearen eskarrietara egokitzea litzateke. Gainera, transbertsalitate puntu bat izatea ere nahi da, zerbitzu, departamentu eta beste behatokiaren artean koordinatu eta interes komuna bilatzeko.

Aipagarria da ere 2019. urteko maiatzean EITB kateak jokuari buruzko publizitatea debekatu zuela esatea (irratian, telebistan eta interneten), salbuesten baten bat eginda eta urte bereko azaroan, 2012. urtetik indarrean mantendu izan den araudian aldaketak egin zirela (2020ko urtarrilaren 14ean aplikatu direnak). Aldaketa hauek, politika publizitarioen arau etikoak barnebiltzen dituzte; legalitate, leialtasun, identifikazio eta zintzotasun printzipioak jarraitu behar dituztelako.

2020. urtean Covid-19 gaixotasun infekziosoaren hedapenaren ondorioz, kirol ekitaldiak eten ziren eta horiekin batera, jokoaren enpresek arreta kasinoetako jokoetara zuzendu zuten komunikazio estrategiak erabiliz (Palomar, 2020). Online jokua ikaragarri hazi zen eta geroago, Espainian beharrezko konfinamendua dekretatzearekin batera, ministro-kontseiluak premiazko neurriak onetsi zituen online apustuen eta ausazko jokuen publizitatea irratian, telebistan edota YouTube bezalako bideo plataformetan mugatzeko (egunsentiko ordu batetatik bostetara soilik onartuz). Neurri hori, alarma-egoera iraun bitartean indarrean egoteko aplikatu izan zen (Medina, 2020). Esan bezala orduan, kirol jardueren etenaldia eta alarma-egoera direla kausa, publizitatea kasinoetan inbertitu zen eta honen igoera bistakoa izan da komunikabideetan leku hartzen duen publizitate kopurua ehunekoetan erreparatuz (urtariletik martxora bitartean kopurua %15-%16 artean kokatzen zen gero, apirilean %44ko zifrara heltzeko, maiatzean %30era jaitsiz). Internet bidezko apustuak 2020. urteko martxoan %55 batean iragarri egiten ziten eta apirilean jaitsiera izan zuten (%46), gero berriro ere igotzeko (%57) (Palomar, 2020).

2.5. Gaur egungo egoera Euskal Autonomia Erkidegoan

Lehen azaldu den bezala, autonomia erkidegoek autonomia-estatutuetan joku eta apustuen kompetentzia eskusiboa erantsita dute, "Apuestas Mutuas DeportivoBenéficas" izan ezik, titularitate estatala bait du. Horrek esan nahi du kasino jokuak, bingoak, joku makinak, ausazko makinak eta apustuak bezalako joku presentzialak, maila autonomiko joku eta loteriak eta azkenik, izaera tradizionalako bestelako jokuak kompetentzia autonomikoa dutela (Jokoaren Euskal Behatokia, 2019). Hala ere, komunitate bakoitzak bere lege eta dekretu propioak ditu eta arautegi ezberdin hauek lurralde bakoitzean gai berdinari buruz ulermen ezberdinak egotea eta testu legeletan auzi ezberdinak agertzea eragin du. Kasu askotan ordea, autonomia erkidegoek antzeko edota berdintsuak diren erredakzioak egin dituzte. Sistema eragile baten bitartez egindako joku edo apustuen antolamendurako kompetentzia Estatuaren Administrazio Orokorraren eskuetan egongo da, eremu nazionala denean edo autonomia erkidego bat baino gehiago barne-hartzen dituenean.


Gauzak horrela, Eustaten Jarduera ekonomikoen direktorioaren arabera, Euskadin, apustu eta ausazko jokuen jardueraren sektoreari dagozkion enpresa kopurua 440koa izan zen 2018. urtean. Urte horretan egindako errekontuaren arabera, enpresa gehienak Bizkaian kokatzen dira (enpresen %53,9), Gipuzkoa doa gero (32,5%) eta Arabak enpresen %12-a du, gainontzeko enpresak Autonomia Erkidegotik kanpo dauden heinean (Jokoaren Euskal Behatokia, 2019). Guzti horiek enpresa pribatuak dira eta kopuruaren aldetik, 2011. urtetik aurrera bereiziki, gorarkada bat izan dute. Ausazko eta apustuen jokura bideratutako establezimendu kopuru handiena duten udalerriak Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuak dira ordena hau jarraituz: Bilbo (116 establezimendurekin), Donostia (59) eta Gasteiz (52). Barakaldo, Irun, Getxo, Basauri eta Portugaletek ere establezimendu kopuru nabarmena dute (14 eta 29 artean, Jokoaren Euskal Behatokiak emandako 2018. urteko datuen arabera).

Kudeaketa pribatua duten kirol apustuak joku eta apustu jokuen eskaintzaren parte oso garrantzitsuak dira eta 2018. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan, apustuentzako zehazki zeuden lokalak 34 ziren (bizkaian 20; Gipuzkoan 10 eta Araban 4). Bizkaian, lokalen gorakada beste lurraldeetan baino azkarragoa izan da Jokoaren Euskal Behatokiak

eskaintzen dituen datuen arabera. Apustuentzako eskusiboki dauden lokalez gain, apusturako lokal gisa gaitutako joku aretoak ditugu, zeintzuk 2018. urtean EAE-n 34ra heldu ziren (hala ere, 2015 lortu zuen maximoa, 42 aretoekin). Mota honetako areto gehienak Bizkaian daude berriz ere (17), Araba bigarren postu batean utziz (9) eta azkenik Gipuzkoa dugu (8).

Bukatzeko, esan beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoa apustuetan gastu handien duen komunitatea dela eta saturazio handi horren ondorioz, izaera honetako lokal gehiago irekitzeko arazoak daudela. Bizkaiak ia 22 euroko gastua du (jokalariko) eta rankingean hirugarren postu batean kokatzen da, Gipuzkoa (38,93rekin) eta Araba (23,38 batekin) aurrean dituelarik (Garcia, 2019).

1. GRAFIKOA: KIROL APUSTUETAKO KONTSUMOIA BIZTANLEKO (€/urtean)
(Online edo presentzialak)



Iturria: Anuario del Juego en España 2019

3. IKERKETAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Apustu etheen aurkako mugimendu sozialen komunikazio estiloa eta garatutako diskurtsoen legitimazio prozesua aztertzea da ikerketaren helburua. Beraz, legitimitate sozialen eraketan sakonduko dugu, hau izateko beharrezkoan diren oinarri psikosozialak zeintzuk diren aztertuz. Horretarako, legitimitatea zer den eta nola eraikitzen den jakin nahi da, ikuspegi soziologiko eta psikosozilogiko batetik. Modu honetan, gizartean legitimitateak duen garrantzia azpimarratuko da, sinesgarritasunarekin, boterearekin, egiazkotasunarekin, autoritatearekin eta jendearen bermearekin lotzen delako. Hori dela eta, mugimendu sozialen komunikazio estiloa funtsezko aldagaia izango da, mugimendu sozialen helburua jendearen konfiantza eta baliozkotasuna lortzea delako, sinesgarritasuna izatea. Izaera horretako mugimendu batek ez badu inolako baliozkotasun sozialik, bere aldarrikapenak ez badira entzuten edo jarraitzen, ez du bere helburua beteko.

Hortaz, ikerketa honetan, alde batetik, jada gizartean hedatu diren apustu etheen fenomenoak dugu eta bestetik azken urteetan horren aurka ateratako mugimendu sozialak. Nola lortu dute jendearen konfiantza izatea? Edo beste hitz batzuetan esanda, nola lortu dute legitimitate soziala izatea? Noiz produzitzen dira honelako ekintzak? Zergatik? Nola?

Zertarako? Nortzuk dira aktoreak? Hala, jendarte mugimenduek zilegitasun sozial hori lortzeko prozesu nahiz moduak aztertuko dira, autoritatearen edo indarrean dagoen ordenaren apurketa edo deslegitimazioa dakarren jakiteko. Horretarako, eta geroago aztertuko diren jendarte-mugimenduak landu ahal izateko, legitimitatea definitu eta sakonago aztertuko da, marko teorikoan garatuko den errebisio bibliografiko baten bitartez. Bertan, autore ezberdinen ikuspuntu nahiz definizioak planteatuko dira eta legitimitate kontzeptua bera jendarte-mugimenduekin duen lotura azalduko da. Behin teoria era egoki eta azaltzaile batean planteatu denean, kasu praktikoak aurkeztuko dira.

Azterketa-unitatea Euskal autonomia Erkidegoko hiru leku geografiko zehatz izango dira, non joko-aretoen aurkako herri mugimenduek indar handia izan duten. Kasu bakarria aukeratu ordez, hiru zonalde aukeratu dira unibertsoaren unitate adierazgarri gisa, ikerketari aberasgarritasuna emateko. Esan bezala, hiru kasu horiek, Gasteizeko Judimendi auzoa, Azpeitia eta Bilbo dira. Euskal Herrian jatorria duten izaera honetako beste mugimendu indartsu asko daude hauetaz gain eta horregatik, aukeraketa egiterako orduan, hainbat faktorek izan dute eragina; hala nola, komunikabideetan izandako inpaktua, mugimenduen indarra, gertutasuna, interes pertsonala, kasuen errepresentagarritasuna eta gertaerek haien artean ezaugarri berdintsuak izatea, ekintzen eta diskurtsoen arteko parekotasunak izateko. Horretaz gain, aukeratutako zonaldeen tamainaren ezberdintasuna ere interesgarria izan daitezke (eremu geografiko eta populazioaren aldetik) ezberdintasun hauek diskurtsoen kudeaketan izan duten eragina aztertzeko. Beste alde batetik, azpimarratzekoa da kasu ezberdin hauetan garatutako diskurtsoen parekotasuna. Izan ere, nahiz eta mugimendu sozial bakoitzaren diskurtso indibiduala espazio zehatz baten beharrian eta aldarrikapenetara egokitu, osotasun batean interes berdinak defendatzen dituzten borroka berdinen parte dira. Kritikatzen den objektua, apustu etxeak eta joko-aretoak, sistema kapitalista baten barruan jaiotzen diren heinean, diskurtsoak jatorri horretara bideratuak egongo dira, sistema osoari kritika sakon bat eginez. Gainera, esan beharra dago kasu hauek elkarrekintzan daudela, etengabeko harremanak dituztelako (sare-sozialen bidezko elkartasuna...). Honekin, hiru kasu hauek besteekiko baztertzaileak ez direla defendatu nahi da, nahiz eta fokua beraiengana bideratua egon.

Ikerketa hau bideratzeko erabili den informazioa, liburu, saiaketa, artikulua eta aldizkarietako edo egunkarietako berrietaik atera da, ekoizpen zientifikoa hedatzeko helburua duten plataformen erabilera eginez.

4. MARKO TEORIKOA

4.1. Legitimitatearen kontzeptua

Edozein esparrutan boterea gauzatzeak legitimitatea eskatzen du (Fernández, 2011). Legitimitatea, zientzia politikoaren alorrean asko aztertu den kontzeptua da eta sarritan, legalitateara murrizten da. Bi termino hauek sinonimotzat hartzen dira askotan eta hizkuntza ez formalean, egunerokotasunean, ekintza bat legitimoa dela esaten da arau juridiko batera mugatzen denean (Oro, 2002). Hala ere, sinplifikazio hori ez da egokia eta ez da zertan bi termino hauen artean loturarik eman behar. Gertatu daiteke ekintza bat legala izatea baina ez legitimoa eta alderantziz, legitimoa izan daiteke baina legala kontsideratu ez. Legitimo hitza (latinezko *legitimus*) hiztegian, guri interesatzen zaigun zentzuan, (1) Legearekin bat datorrena, (2) Bidezkoa eta (3) Egiatzkoa/ benetazkoa bezala definitzen da (Diccionario de la Real Academia Española) baina esan bezala, legearekiko ezberdintasun hori funtsezkoa litzateke bi kontzeptuak ulertzerako orduan. Legalitatea, ordenamendu juridiko gisa, ez da zertan legitimoa izan behar baina ez da zertan legitimitateetik urrun egon behar ere ez (Dartiguelongue, 1995). Izan ere, legalitateak, jarreraren eta balioen perspektiba bat eskaintzen digu, interes batzuen defentsa eginez eta aldi berean, negatiboki baloratzen diren jarrera batzuen aurka egiten du (legalitatea ezin da "neutroa" izan). Horrek orduan, legitimazioan oinarria aurkitzen du, eskubide eta Estatu ororen atzean, munduaren kontzepzio bat dago, balio zehatz batzuk, horiek interesei lotuta doaz. Baina horrek ez du esan nahi legalitate oro beti eta betirako zuzena izango denik, hots, legitimatua dagoenik. Soziologiaren alorretik, sistema bat legitimatua dagoela esaten da funtzionatzeko eta aurrera ateratzeko indarra erabili behar ez duenean. Legitimitatea horrela, esan nahi du orden politiko batekin lotuta doan erreklamazioak argudio onak dituela egokia eta bidezkoa dela kontsideratzeko (Dartiguelongue, 1995). Estatu kontuei dagokienez, funtsezko bi kontzeptu dira subiranotasuna eta legitimitatea; legitimitatea alde batetik Estatu baten errekonozimendu internazionala dakarrelako, bere goreneko botere independentearen errekonozimendua, eta bestalde, legitimitatea populazioaren aldetik errekonozimendua izatea delako, Estatu bateko gobernanteak boterearen jabeak direlaren errekonozimendua ematea (López, 2009).

Legitimitatearen kontzeptuak historikoki ibilera luzea izan du (López, 2009). Latin klasikoko "legitimus" hitza, legalitate eta eskubidearekin bat egiten duena izendatzeko erabiltzen zen (autoritate eta magistratu legitimoak legalki esleitutakoak ziren -"legitimum imperium" eta "potestas legitima"-) eta oinordekotzaren eskubideekin bat datorrena izendatzeko ere. San Agustínek "extra civitatem Dei nulla legitimitas" adierazten zuen legitimitate politiko eta juridikoari buruz mintzatzerakoan, justiziaren kontzeptuan oinarritzen zirenak. Erdi Aroan, "legitimus" ohituren eta ohiturazko zuzenbidearen arabera osatuta zegoena zen. Aroaren amaieran, boterearen teoria demokratikoaren lehenengo formulazioak egin ziren eta nahiz eta Jainkoak boterea izan, herriaren onarpenean ezartzen zen. Komunitate politiko batera igaro zen legitimitatea gero eta bere onespenearekin boterearen erabilera eta horren titularitatea bera balioztatzen zen. Hainbat autorek Estatu baten autoritate legitimoa nola eratzen den aztertu zuten, pentsamendu politiko modernoaren ezaugarrietako bat bilakatuz (Hobbes, Rousseau, Locke, Spinoza...). Lockek eta geroago Rosseauk legitimitate demokratikoa landu zuten. Lockek dio Estatuaren jatorrizko paktu edo itun konstitutiboa, hau da, gobernu legitimo baten printzipioa, helburu batzuk lortzeko gizartean bildu den komunitate bati horiek lortzeko behar duen boterearen entrega egitea dela. Lockeren

paktuaren formula honek legitimitate mota bi ezberdintzen ditu: hala nola, jatorrizko legitimitatea (legitimidad de origen) eta gauzatze legitimitatea (legitimidad de ejercicio). Lehenengo legitimitate mota, jatorrizkoa, boterearen entrega egitean datza eta horrela, herria izango da Estatuaren boterearen titularra (gobernu errepresentatiboa). Bigarren legitimitate mota, jatorrizko itunaren helburuak lortzeko boterearen erabilerari deitzen zaio (boterearen erabilera ilegítimoa, Estatuaren llegeek gizabanakoak babesten ez dituztenean gertatzen da). Beste alde batetik, Rosseauk bere teoria politikoan legitimitate kontzeptua lantzen du. “Gizarte-Hitzarmena” (El contrato social, 1762) lanean, ordena zibilean administrazio legitimo eta segururako arau bat dagoen jakin nahi duela dio, justizia eta erabilgarritasuna bateratu ahal izateko. Hasieran Rosseauk legitimitatea justiziarekin lotzen du eta geroago askatasunarekin. Bi oinarri hauen gainean eraikitzen da bere aburuz Estatuaren legitimitatea eta beste autore moderno askok zioten moduan, kontratu soziala da hori eraikitzeko bitartekaria. Boterearen titular legitimoa herria da eta herria Estatuarekin identifikatzen da. Hortaz, herria Estatu eta subiranoa izango da. Rosseauren hitzarmen soziala ez da elkartasun eta sumisiozko paktua (Hobbesen kasuan bezala), horren ordez, borondate orokorrean oinarritzen da eta legearen bitartez adieraziko da. Boterearen erabilera legitimoa izango da soilik borondate orokorra errespetatzen badu, legeak betetzen baditu. Rosseaurentzat orduan legitimitatea legalitatean bilakatzen da (subiranotasun popularrean eta borondate orokorrean oinarritu behar delako). Beste alde batetik, interesgarria da esatea legitimitatearen ideia monarkia tradizional absolutuek erabili zutela ere Frantziako Iraultzan sortutako erregimen demokratiko eta errepublikarren aurka joateko eta haien boterea justifikatu eta mantentzeko, XIX. mendean. Modu horretan, legitimitatea eskubide jainkotiarretan eta tradizioan (antzinatasun historikoan) oinarritzen zen (López, 2009).

XX. mendean, legitimitatearen kontzeptuak teoria politikoan pisu handiagoa lortu zuen Max Weber, Carl Schmitt eta Guglielmo Ferrero autoreei esker batez ere (López, 2009). Labur azalduta, Weberren aburuz, ekintza bat legitimoa da subjektua bere balioen arabera jarduten duen neurrian (Oro, 2002). Autore klasiko honek ez zuen kontzeptua bera zehazki definitu baina horren inguruan asko mintzatu zen. Berak, lau gizarte ekintza mota bereizten zituen: xedeen araberako ekintza arrazionala (acción racional con arreglo a fines), ekintza tradizionala, ekintza emozionala eta baliozkoak diren helburuak lortzeko ekintza arrazionala (acción racional con arreglo a valores) (Oro, 2002:2). Horietatik xedeen araberako ekintza arrazionala eta baliozkoak diren helburuak lortzeko ekintza arrazionala soilik izango dira guretzako erabilgarriak. Baliozko ekintza arrazionalak, gizabanakoaren kontzientziari egiten dio erreferentzia, hau da, kontzientzia horren araberako aginduak betetzearen nahia dira (modu zehatz batean jokatzea norbera bere buruarekin konforme egoteko). Hori dela eta, subjektuaren helburua edo nahia, bere ekintzak bere balioekin (kontzientzia, moralak) bat egitea da. Xedeen araberako ekintza arrazionalak bestalde, objektu praktikoa bati buruz egiten du, subjektuak helburu praktikoa bat bilatzen du, balio instrumentala izango duena (ekintzak berak ez du baliorik, helburu praktikoa lortzeko bitartekaria da). Azkeneko ekintza instrumental hau utilitarioa da baina duen pragmatismo horrek ez du esan nahi moralak edo legalitatearen aurka doanik. Orok azaltzen duen bezala (2002), Weberrentzako legitimitatearekin lotura duen ekintza baliozko ekintza arrazionala da, aurretik esan bezala, autore klasikoarentzat ekintza bat legitimoa da subjektuak bere balioen arabera jarduten duenean. Weberrentzat legitimitatea aldakorrek izan daitezkeen balorazio zehatz batzuetan

oinarritzen da. Balorazio horiek “egiazkoak” kontsideratzen dira (*sinesmen statusa* dute), sozialki eztabaidaezinak dira. Legitimitateak gainera, erakunde, antolakuntza nahiz bestelako talde edo kolektiboei egonkortasuna ematen die (Oro, 2002). Esan bezala, Weberren idatzietan ez da legitimitatea eta legitimoa modu esplizitu batean lantzen eta “baliozkotasuna” erabiltzen du horri buruz mintzatzeko. Honela, legitimitatea, dominatzaileek haien dominazioaren baliozkotasuna justifikatzeko balio duela ere esan daiteke (Pamplona, 2001). Horren harira, orden legitimo baten existentziak, dominatuen iritziz justuak, bidezkoak eta arrazoizkoak diren instituzio politikoen funtzionamendua ahalbidetzen duela esan beharra dago. Ezaugarri horiek antolaketa politiko batek izateak, bakea, egonkortasuna eta elkartasuna egotea errazten du. Weberrentzat, orden legitimo bat, akordio utilitario soil bat izateaz haratago, “egiazkoa” kontsideratzen dena da, sinisgarritasun plenoa duena alegia. Horregatik, legitimo bezala ulertzen den instituzionalitate bat, “orden natural” gisa kontzebitu egiten da eta ez du indarrik edo justifikazio intelektual handirik behar (gizabanakoek aginduak zalantzarik gabe edo behartuta sentitu gabe beteko dituzte, haienezako legitimoak direlako) (Oro, 2002). Modu horretan, autoreak hiru legitimitate mota bereizten zituen: karismatikoa, tradizionala era arrazionala hurrenez hurren, eta garaian legitimitate forma komunena legalitatearen sinismena zela (agindu juridikoenganako obedientzia) (Legaz, 1958). Lehen aipatutako Carl Schmitt autoreak, legitimitatea eta legalitatea lotzen dituen ideiarekin aurka egin zuen, doktrina positibistaren eta Weberren aurka eginez (López, 2009). Planteamendu hori jarraituz, bi kontzeptu horiek harreman “bipolar” bat mantentzen dutela adierazi zuen. Berak dioen arabera, legea, aldakorak diren gehiengo parlamentarioen ondorioa da eta izaera aldakor hori izateak esan nahi du legearen iraunaldia kamara legegileetako konposizio politikoen aldaketen arabera dela. Honela, kamara legegileetako arauak ausazko izaera bat dute. Guglielmo Ferrerok dio legitimitatea boterea justifikatzeko erabiltzen dela eta agintzeko eskubidea eta obeditzeko betebeharra sustatzen duela, modu inplizitu batean. Gobernatzaileen eta gobernatuen arteko akordioa den arren, legitimitatearen irizpideek *sinesmen statusa* izan behar dute, kolektiboki horietan sinistu behar da koakzioa ez erabiltzeko (arrazionalismo edo logikan oinarritutako argudioak ez dira nahikoak, uste masiboak dira, fede soziala). Horregatik, legitimitatearen irizpideek ez dute koakzio sistematorik behar, ez dira etengabe gogorarazi behar. Legitimitateak *sinesmen status* hori lortzen duenean ez da zertan intelektualki justifikatu behar, hau da, ez da beharrezkoa etengabe egiaztatzen egotea edo haien dimentsio arrazionala aldarrikatzea. Garrantsitua da azpimarratzea Ferrerok, beste autore askok dioten bezala, legitimitatearen aldakortasuna defendatzen duela, hau da, testuinguru eta historiaren norabidearen arabera dela. Aro historiko batean legitimo gisa ulertzen dena aldatuz joango da errealitate berri eta ezberdinen etorrerarekin (Oro, 2002). Ferrerok dioen bezala, gure garaian legitimitate printzipioa demokrazian oinarritzen da (subiranotasun popularra eta boterea herriaren gobernanteei ematea) eta hori mantentzeko, herriaren borondatea benetazkoa eta eraginkorra izateko behar diren elementuak honako hauek dira besteak beste: sufragio askatasuna eta aurkaritzarako askatasuna (López, 2009).

Autoreekin bukatzeko, Habermas dugu. Bere ustez legitimitatea, orden politiko batekin doa, egokia eta bidezkoa izateko xedea duena (argudio onak erabiliz). Orden legitimo hori, Habermasen arabera, errekonozimendua izatea merezi du, legitimitatea izatea orden politiko baten errekonozimendua izatea esan nahi duelako (Serrano, 1994). Berak, Weberren legalitatearen legitimitate kontzeptua kritikatzeko du (López, 2009). Weberrek dominazio

legala dominazio arrazional mota bat zela, formala, uste zuen (garaiko ideia positibistak jarraituz, positibismo juridikoa) baina Habermasen aburuz, Estatu liberalaren eskubidea ez zen eraikuntza juridiko-formal soila, nukleo moral bat zuen. Moral horrek garrantzi handia izango du Habermasen planteamenduan eta nukleo moral horretan, justizia, giza-eskubide edota Estatu baten funtzionamendu demokratikorako prozedura formalak bezalako edukiak zeudela zioen. Habermasen legitimitate kontzeptuak beraz, alde batetik eduki moral inplizituak eskatzen ditu (forma orok edukiak behar ditu gauzatua izateko) eta bestetik, arrazoiketa arrazionala behar da (aldi berean eduki moralak eratuko dituen) (López, 2009). Habermasentzat, legitimitatea komunikazio prozesu bat da, izan ere, boterea fenomeno sozial bat den heinean, justifikatua egon behar da (Serrano, 1994) eta komunikazio prozesu horren helburua, ulermen bat lortzea da, non koakzioak baztertzin diren eta talde sozial batek eduki materialak erabakitzen dituen (López, 2009).

Legitimitatea hala, botere publikoa duenak duen erantzukizuna bezala definitu daiteke, alde batetik bere jokabideak legearekin bat etorri behar direlako eta bestetik, sozialki eta moralki onartuak izan behar direlako (Gómez, 2019).

4.2. Legitimitate soziala gizarte mugimenduetan

Azken urteetan gertatzen ari diren asaldadura edo krisi ezberdinen ondorioz, asaldadura sozio-politikoek indar handiagoa hartuz doaz (protestak, mobilizazioak...) (Martinez, Casado eta Ibarra, 2012). Asko dira gizartean protestatzeko erabiltzen diren formak (grebak, manifestazioak, kazeroladak, okupazioa, blokeoak, eskratxeak, akanpadak, errepide mozketak...) ekintza eta borroka soziala, heterogeneoa delako. Izan ere, autore askoren aburuz, gure testuinguruan leku hartzen duten protesta sozialak inoiz baino heterogeneoagoak dira, forma eta edukien aldetik (Rebón, 2014). Tilly autoreak zioen ekintza kolektiboak interes komunak dituzten pertsona multzo batek burutzen dituela. Pertsona multzo hauek, esturketan antolatzen dira eta ekintza mobilizatzaileak martxan jartzen dituzte, betiere hauen influentzia erraztu edo zailduko duen esturketara politiko zehatz baten menpean. Akzio kolektiboaren protagonista mugimendu sozialak dira, esturketara informala dute, parte-hartzaileek era boluntario batean egiten dute eta mobilizazioa, boterean eragiteko bitartekoa da. Hortaz, akzio kolektiboak lau elementu dituela esan daiteke: interesak (interes komunak egotea), antolaketa (esturketara egotea), mobilizazioa (erreflexio eta auto-antolakuntzatik ekintzara pasatzea) eta testuingurua (elementu guzti horiek testuinguru politiko- sozial- kultural- ekonomiko zehatz batean gertatzen dira) (García, 2013). Horretaz gain, mugimendu sozialak identitate eta talde izaerarekin loturik daude, zerbaiten parte sentitzeak gizabanakoaren parte-hartze kolektiboa ahalbidetzen duelako, identitate kolektibo bat eratuz (García, 2013). Egoera bat "bidegabekoa" bezala definitu behar da protesta akzioak sortzeko eta hori izan daiteke, Klandermansen arabera, akzio kolektiboa emateko lehenengo baldintza (García, 2013). Horrelako egoera baten aurrean borroka sozial nahiz ekintza kolektiboak hartzen duen forman, kulturak eragin handia du, gizartearen, gatazkaren, aktoreen... arabera ekintza formak aldatuz bait doaz (Rebón, 2014).

Melucci soziologoak mugimendu sozialak lehen onartzen zen edo eztabaidatzen ez zen orden baten aurka doazen pertsona multzo bezala definitu zituen (1994). Mugimendu sozialak akzio kolektibo forma dira bere ustetan eta hauek, 1) aldaketa sozialak lortzeko edo

ekiditeko elkartasunerako deia egiten dute, 2) haien existentzia errealitatea ulertzeko modu bat da, 3) ekintza horiek gertatzen diren sistema normatibo eta harreman sozialen mugen apurketa dakar eta 4) gizartean arau eta legitimazio berriak eratzeko gaitasuna dute (Melucci Gómezen testuan, 2019:74).

Politikak autonomia instituzionala galduz joan den heinean, bere legitimitatea eraldatu egin da eta gaur egun legitimitatearen oinarri klasikoak (Weberren tradizio, karisma eta legalitatea) desagertu ez diren arren, espazio publikoan garrantzia handia hartu duen erreferentea "iritzi publikoa" da. Iritzi publiko hau legitimitatearen krisia nabarmentzen du, jada nahikoa ez delako gobernatzailearen akzioak legearen barruan egotea, hiritarren onarpen soziala izan behar dute ere. Honek, demokrazia errepresentatiboaren krisia islatzen du, marko tradizionalen egiten diren erabakiak zalantzan jarri daitezkeelako (Gómez, 2019). Gauzak horrela izanda, mugimendu sozialek legitimitate bat eratzeko beharrean daude, haien ekintzak indibidualak ez izateko eta iritzi publiko batetik abiatuz, definitutako identitate bat duen kolektibo bat lortzeko. Izan ere, mugimendu sozialek defendatzen duten interesek izaera soziala izan behar dute, ezin dira partikularrak izan, adostasun komun batera heldu ahal izateko (marko kolektibo baten beharra dago) (Gómez, 2019). Gauzak honela, mugimendu sozialek orden konstituzionalarekin sortutako gatazken emaitza kontsideratzen diren heinean, identitate bat errebisatu behar da, aurkari bat eta denboran iraunkorra izango den helburu bat (Castells Gomezen testuan, 2019). Ildo horretan, mugimendu sozialek orden soziala edo sistema dominantea aldatu nahi dutela esan behar da, jada existitzen den errealitatea aldatu interes komunak abiapuntutzat izanda. Interes komun horiek, lehen azpimarratutako kolektibotasun izaera horrek, legitimitate sozial bat eraikitzen laguntzen du. Esate baterako Txileko diktadura militarren garaian sortutako politika eta ekonomia neoliberalen eta errepresioaren aurkako mugimenduak ("movimiento de pobladores") erregimen baten deslegitimazioa suposatzen zuen (Revilla, 1994). Beraz, garrantzitsua da esatea parte-hartze kolektiboak ematen direnean, sistemak edo indarreen dagoen ordenak legitimitatea galtzen duela, arazo baten aurrean kaltetutako pertsonak aldaketak aldarrikatzen dituztela eta azkenik akzio kolektiboaren bitartez aldaketarako espektatibak eta emaitzak sortzen direla (García, 2013). Mugimendu sozialek dakarten autoritatearen zilegitasun galtze edo deslegitimitate hori da interesatzen zaiguna, sistemaren aurkako jarrerak babes eta sinesgarritasuna irabazten dutelako.

Protesten eraketen espazio edo testuingurua klasifikatzerako orduan, Klandermansek, (1994) psikologia sozialaren adarretik, hiru maila ikertu behar direla zioen: diskurtso publikoa eta identitate kolektiboaren eraketa eta eraldaketa; mugimenduaren antolakuntzak eta horren aurkariak kanpainetan izandako komunikazio pertsuasiboa eta protesta gertakarietan zehar lortutako kontzientziazioa (García, 2013). Konstruksionismo sozialetik (fenomeno psikologikoak testuinguru sozialetan garatzen direla defendatzen duen ezagutzaren teoria soziologiko eta psikologikoa) markoen analisia (frame analysis) ekintza sozialaren eraikuntza soziala ikertzeko erabiltzen da. Ekintza kolektiboaren markoa, mugimendu sozial baten liderrek eraturako interpretaziozko eskema bat da. Azken honek errealitate sozial bat definitu eta etiketatu, jarraitzaileak mugiarazi eta aurkariak edo antagonistak geldiarazi nahi ditu. Hori dela eta, mugimendu sozialek gertakari sozialei esanahia eman eta definitu egiten dituzte, egoera batzuk problematiko gisa kontsideratuz. Ekintza kolektiboak aztertzeko hiru marko erabili daitezke (Hunt, Benford eta Snow, Garcíaen testuan, 2013:11):

1. Diagnostiko markoa: Ekintza sozialak problematiko bezala definitzen dira eta aktore erantzunleak identifikatu egiten dira (atagonista edo aurkako rola izango dutenak). Honela banatzen dira.
 - Identitate markoa: Kaltetutako “Gu” bat definitzen du.
 - Injustizia markoa: Aurkari bat ezartzen du, bidegabekeriaren autorea, “Bestea”.
2. Pronostiko markoa: Egoera konfliktibo hori hobetzeko proposamenak finkatzen ditu, zer egin behar da eta nork.
3. Motibazio markoa: Jarraitzaileei ekintzarako arrazoiak daudela esaten die eta horren eraginkortasunaren inguruan konbentzitzen ditu. Ekintza kolektiboan, egoera bat problematiko gisa definitzen duten pertsonen inplikazioa bilatzen da, identitate komun bat partekatzen dutenak (“gu” “haien” aurka), egoera hori eraldatu ahal izateko proposamenak eginez. Aldi berean, honela banatzen da:
 - Eraginkortasun markoa: Jarraitzaileen artean ekintzaren eraginkortasuna zabaltzean datza, hau da arrakasta itzaropena.
 - Kostu/irabazi markoa: Ekintza kolektibo batean inplikatzeko dakarren kostu eta irabazien pertzepzioa.

Marko hauek kontuan hartuko dira lan honetan aztertuko diren kasuen analisia eta desglosea egiterako orduan, mugimenduen eraikuntza eta haien zilegitasunaren jatorria eta nondik norakoa ulertu ahal izateko.

Atal honekin bukatzeko hortaz, legitimitate politikoa eta legitimazioa lortzeko prozesu soziala bereizi behar direla azpimarratu behar da, alde batetik legitimitate normatibo bat dugulako, sarritan izaera juridikoa duena, arau positiboak (Estatu baten errekonozimendu legitimoa, kontratu soziala, justizia, ideologiko-filosofikoa...), eta bestetik ikuspegi psikosozial bat dugulako. Ikuspegi psikosozial horren arabera, zerbait legitimoa izango da arauak, balioak, sinismenak, praktikak eta talde batek onartutako prozedurak kontuan hartzen direnean (Zelditch, Apodaka eta Villarrealen testuan, 2008:22), legitimitatea “pertzepzio marko” horien arabera hautematen den egokitasun kalitatea da (Apodaka eta Villarreal, 2008). Legitimitatea, edo legitimitatearen arazoa, sozial eta gizatiarra denaren ikuspegi partikular bat suposatzen du (Apodaka eta Villarreal, 2008:23). Ikusi daitekeenez, nahiz eta kontzeptu ezberdinak izan, legitimitate kontzeptuak betiere balioak, kolektibotasuna, boterea, morala, sinismena, errekonozimendua, baliozkotasuna... bezalako aldagaiak bere gain hartzen ditu; balioak oso garrantzitsuak bait dira, orokorrean gure jarrera eta balio propioekin bat egiten ez duten balioak diskriminatzeke joera dugulako (Bretones, 2008). Legitimitatearen azterketak mota askotako ekarpenak (euskarri teoriko asko, ikerketa enpiko ezberdinak...) eta inplikaturako fenomenoak (influentzia, pertzuazioa, jarrera aldaketa, obedientzia, autoritatearen eraikuntza psikosoziala, taldeen arteko harreman eta arazoak, aldaketa eta berrikuntza soziala, atxikimendu instituzionala, pertsonen arteko loturak...) ditu (Apodaka eta Villarreal, 2008:21) eta lan honetan, bigarren legitimitate mota hori aztertuko da, faktore psikologiko eta soziologikoak kontuan hartuz, hots, “psikea” eta adar soziala.

5. ANALISIA: KASUEN AZTERKETA

5.1. KASUEN DESKRIPZIOA

5.1.1. Gasteizeko Judimendi auzoa

Gasteizeko Judimendiko auzoan (Olagibel kalean), joko areto bat zabaldu zuten 2017. urtean eta ez da ireki izan duten lokal bakarra. Gasteizen 2018. urtean 27 joko-areto zeuden zabalik, eta urte amaieran kopurua igotzen joan zen. Hildo horretan, aretoa ireki eta 12 hilabete pasatu zirenean, Judimendiko Gazte Asanbladako kideek Auzoan Jokoz Kanpo izeneko kanpaina bat hasi zuten. Kanpaina hori ikerketa batekin hasi zen (galderak inguruko tabernariei, auzokidei 100 inkesta inguru, joko-aretoetako langileei elkarrizketak... egin ziren). Gainera, lokalaren barruan egon ziren gazteak, behaketa lanak egin zituzten, bezero motak eta hauen jarrerak aztertzeko asmoz. Beraz, "Auzoan jokoz kanpo. Joko aretoaren inguruko hainbat argipen" ikerketa gauzatu zuten 2017ko azarotik 2018ko martxora bitartean auzokideen laguntzarekin. 2018. urteko urrian aurkeztu zen azkenean Auzoan Jokoz Kanpo izeneko txostena (egun ezberdinetan aurkeztu zen -ikastetxeetan...- eta zenbait tabernetan eskuragarri egon da) eta horretaz gain, hilabeteko azken ostegunero elkarretaratzea antolatu zuten auzoko joko-aretoaren aurrean. Markajea ere erabili zen protesta modu gisa; Gasteizko joko-areto ezberdinak margoz beteak eta "Zer dago jokoan?" galderarekin agertu ziren 2019ko urtarrilaren 28an, astelehen goizean. Aurreko asteetan, Arabako hiriburuko zonalde ezberdinetan kartel ezberdinak agertu ziren ere "Zer dago jokoan?" galderarekin eta beste kartel batzuetan joko-areto horiek nork babesten dituen salatzeke panelak ikusi ziren (Ernai Gasteizek bere sare sozialetan zabaldu zituen argazkiak). Gainera, 2018. urtearen amaieran, hasieran baino jokorako areto gehiago zenbatu ziren, 27 izatetik 32 izatera igaroz, Argia aldizkarian argitaratu zen bezala (Torner, 2018). 2019ko apirilaren 4an Gasteizko Judimendi auzoko bizilagunek Olagibel kalean dagoen joko aretoaren kontrako dinamika aurkeztuko zutela esan zuten: "Judimendik joko aretoari ez" eta Sefarad plazan hartu zuen lekua prentsurrekoak. Ekainaren 23an apustu-etheen kontrako lehenengo manifestaldia deitu zuten hilaren 23rako. Manifestaldi hau, Araban joko aretoen aurkako egin zen lehena izan zen.

Urte horretako irailaren 28an Judimendi auzoko apustu etxea itxi zuten. Hala ere, Joko Aretoari Ez dinamikakoek esan zuten joko areto horren jabea negozioa berriz zabaltzen saiatzen ari zela. Instituzioei esku hartzeko edo haien jarrera zein den argitzea eskatu zieten. Azaroaren 4an hiriko 37. apustu etxea laster zabalduko zela iragarri zuten, Gasteiz Hiribideko 66. zenbakian eta bi ikastetxetatik gertu. Horretaz gain, berriro ere zabaldu zituen ateak, Olagibel kaleko Joko Aretoak. Gasteiz Hiribideko 66. zenbakian esan zuten irekiko zutela apustu etxe berria, bi ikastetxeren artean (Presentación de Maria eta Niño Jesus). Gainera, Landazuri Ikastola eta Santa Maria de Vitoria ikastetxea 450 metrotako distantziaria daude. Olagibel kaleko joko aretoak bi hilabetez eman zuen itxita eta "auzoaren borondatearen aurka" ireki zutela esan zuten Judimendiko Gazte Asanbladako kideek. 2019ko urtarrilaren azken ostegun guztietan elkarretaratzeak antolatu zituzten Judimendiko Gazte Asanbladako kideek joko-aretoaren presentzia salatzeke.

Covid-19a dela eta, lokalak bere ateak itxi behar izan zituen eta 2020. urteko ekainean berriro ere ateak zabaldu zituen, deseskaladako hirugarren fasearekin batera. Egoera

horren aurrean, Judimendiko gazteek elkarretaratzea egin dute berriro ere lokalaren aurkako protesta jarraitzeko asmoz. Elkarretaratzea Judimendiko Gazte Asanbladak aurrera eraman du (ekainaren 8an) "Entzun gintuzten eta entzuten jarraituko gaituzte" lelopean.

5.1.2. Azpeitia

RETAbet enpresak (kirol apustuak) Azpeitiko Balentina Agirre plazan apustu etxe bat ireki zuen 2018. urteko urriaren 31an eta horrek aurkako jarrera ugari piztu ditu. Apustu etxea ireki aurretik jada, 2018ko uztailan, irekitzeaz zegoen etxearen aurkako pankartak jarri zituzten negozioaren hormetan. "Zuen dirutza, askoren pobrezia" eta "Apustu etxeak kanpora" zioten sinatu gabeko pankarta horiek. "Elkartasuna eta aldaketa soziala" bultzatzen dituen Elkar-ekin elkarteak hiru asteko kanpainia martxan jarri zuen herritarrak bildu eta kontzeintzia pizteko. Elkarretaratzea deitu zuen uztailaren 26rako apustu etxearen aurrean eta adin ezberdineko herritar asko bildu zen bertan. Uztailaren 26an Apustu etxeen aurkako protesta egin zuten Azpeitian, kontzentrazio bat antolatu zen "Apustu etxeak Azpeititik kanpora" lelopean (Kartelak honako hau zioen ere: "Gutxi batzuk dirutzak irabazteko pentsatuak daudelako; Diru errazaren ameskeria saltzen dutelako; Arazo ekonomiko larriak sortzen dizkietelako herritarrei; Ludopatia bezalako gaixotasunak sortzen dituztelako"). Kontzentrazio hau, Elkar-Ekin taldeak deitu zuen eta herriko gaztetxeak eta Ernaik babestu zuten. Aurreko egunetan, irekiko zuten lokal berriari herrian ez zela ongi etorria adierazteko kartelak ere itsatsi zizkieten. Urriaren 27ko goizean, apustu etxea silikonaz itxia eta pintadekin agertu zen (Elkar-ekin taldearen protestaren parte izanda). Aurretik igarotako azken asteetan, Elkar-ekinek apustu etxearen aurkako 1.000 sinadura baino gehiago (1.636) bildu zituen, eta hilaren 31ra bitartean jarri zituzten herrian horretarako mahaia eta guneak. Azpeitiako Udalak, Eusko Jaurlaritzari oharra bidaliko ziola esan zuen (Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak duelako apustu etxeak arautzeko eta baimenak emateko eskumena), halako lokalek herrian eragin zezaketen "inpaktuaren" inguruko informazioa eta txostena eskatzeko. Gainera, apustu etxeen araudia berrikusteko galdegin zion Udalak jaurlaritzari. Horretaz gain, Udalak bat egin zuen herriko eragileek gai horren inguruan bultzatzen dituzten ekimenekin.

Balentina Agirre plazako lokala ireki ostean protesta horiek jarraitu zuten. 2018ko urriaren 31an, apustu etxearen inaugurazio ekitaldian protesta egin zuten herritarrek (50 bat lagun sartu ziren apustu etxera kontrako jarrera aldarrikatzera). Apustu etxearen irekieraren harira, Elkar-ekin taldeak oharra plazaratu zuen eta herritarrei lokala "sozialki" bazter zezaten dei egin zien. "Erakundeen baimenarekin ireki dute negozioa, baina izan gaitetzen herritarrak apustu etxea Azpeitian soberan dagoela adierazten dugunak", esan zuen. Presio soziala egiten jarraituko zutela esan zuen taldeak eta herritar guztiak gonbidatu zituzten antolatuko dituzten ekimenen eta mobilizazioetara. 2018. urteko abenduan, CNT Urolako kideek herritarrak 20 kolektibok deitutako kontzentrazio batean parte-hartzeko animatu zituzten. Abenduaren 15rako kontzentrazio bat antolatu zuen Elkar-ekin taldeak ere kontzentrazio bat egin zuen eta lan-eremu ezberdinetan aritzen diren Azpeitiko hamazazpi taldek bat egin zuten kontzentrazioarekin. Urtarrilaren 17tik martxoaren 14ra bitartean, ostegunero, Elkar-ekin taldeak elkarretaratzea egin zen apustu etxearen aurrean eta hori aurrera atera ahal izateko, 45 lagun ingururen parte hartzea beharko zutela aurreikusitako zuten. Hori dela eta herritarren partaidetza eskatu zen. Elkar-ekinek deitutako hitzordua Basanderiek talde feministak, LAB, ELA eta CNT sindikatuek, EH Bilduk, Sortuk, Orkatz kultur elkarteak, Ernai

gazte antolakundeak, Ilunpe pilota elkarteak, Ikasberri kirol elkarteak, Azpeitiko Gaztetxiek, Erriarraitz bertso eskolak, Khamar Sahararen aldeko taldeak, Marea Arroxa festa batzordeak, Urrestillako festa batzordeak eta XJ Auzolanean Sanjuandegiko auzo elkarteak babestu zuten. Modu honetan ostegunero, sei laguneko taldeek elkarretaratzea eta propaganda banaketa egingo zutela esan zuten Azpeitiako Balentina Agirre plazan Retak duen apustu etxearen atarian. Elkar-ekin taldearen eskuko ekimen iraunkorra izan zen eta hauen kideak izan ziren lehen txanda egin zutenak. Ondoren, Azpeitiko beste hainbat taldek eta kuadrillak hartu zuten parte. 2019ko otsailaren 14an Ernaik adin txikiko gazteek apustu etxeetara sartzeko oztoporik ez zutela erakutsi zuen bideo batean eta Balentina Agirre plazan dagoen apustu etxeak adinaren legea betetzen ez duela salatu zuten. 2019ko martxoaren 13an kontzientzia piztea lortu zela ikusi daiteke, apustu etxeen kontrako dinamikak eraginda, makina txanponjalea (joko-makina) kendu bait zuten Azpeitiko taberna batetik. Eperra tabernaren arduradunak, apustu etxeen auzia gizarteratzeko abiatutako dinamikek eta zenbait herritarren esperientziek gaiaz hausnartzera bultzatu ziotela esan zuten. Azaroaren 4an apustu etxearen urtemugaren ondorioz, elkarretaratze zaratatsua deitu zuten Elkar-ekinek azaroaren 22rako, apustu etxea ixteko helburuarekin. Abenduaren 16an beste protesta bat egin zen Balentina Agirre plazan, non hainbat herritar bildu ziren.

5.1.3. Bilbo

Bilboko kasua ez da aurreko bi kasuak bezain zehatza izango, hiri oso batean emandako gertakariak modu orokorrago batean barnebilduko direlako. Eragin kolektiboa (Bilboko Gazte Prekarizatuen Asanblada, 2015. urtean sorturikoa), Bilbon bi urte daramatza apustu-etxeen aurkako diskurtsoa zabaltzen; izan ere, nahiz eta udalak lizentzia gehiago emango ez dituela esan, jada kaleetan dauden 50 lokal baino gehiagoren aurkako neurririk hartu ez duela salatu dute Eraginetik. Zabalburuk jokurako 4 areto ditu, 2 aputu etxe eta bingo bat; Deustok 5 jokorako areto ditu; Errekalde 4, Santutxuk beste 4, Alde Zaharrak 4... Abandon ere aretoen kontzentrazioa oso handia da, hiriaren zentruan kokatzen bait da, eta kopuruek altu jarraitzen dute auzo askotan. Gainera, Bilbon dauden 32 ikastetxeek, jokurako areto bat dute 100 metro baino txikiagoa den distantzia batera.

Eragin kolektiboak #NoEsLoQueHay lelopean, gizarte kapitalistak dakartzan bidegabekeriaren eta prekarizazioaren aurka egiten du (eta gaitz horien artean apustu etxeak kokatzen dira). Apustu etxeak salatzeaz gain, enpresa hauek egiten duten publizitate masiboaren aurka egiten dute ere, erabiltzen diren aurpegi famatuak eta futbol taldeen inplikazioa kritikatu. Manifestazio, ekimen eta hitzaldi ugari antolatu dira gai honen inguruan eta 2019. urteko otsailaren 28an mozio bat aurkeztu zuen Eraginek Bilboko Udaletxean, negozio hauek erregulatzeko neurri minimoak proposatuz. Baina gobernuko taldeak (PNV eta PSE) ez zuen gainditu. Manifestaldiek eta mobilizazioek aurrera jarraitu zuten eta aurrerago, mozioa aurkeztu eta urte bat igarotakoan, Zabalburu plazatik hasten zen manifestazio bat antolatu zuten Eragin taldekoek, otsailaren 28an, Errekalden bukatu zuena. Zonalde horretan dauden aretoetatik igaro zen manifestazioa, instituzioei haien aurkako neurriak hartzeko eskatzen zitzaizen bitartean.

5.2. LEGITIMAZIORAKO BIDEA: Faktore psikosozialak

Esan bezala, jendarte mugimenduak sozialki legitimatuak izan behar dira autoritatea eta boterea izateko eta pertsonen jokabidea moldatzeko (pertsuazioa). Prozesu horretan hainbat faktore sozial eta psikologikoen eragina dute. Horregatik, legitimazio prozesuan pisua duten faktore psikozialak aztertuko ditugu; ikertzen gauden aktoreen diskurtsoa eta komunikazio estiloa aztertuz, geroago solaskidetza eta kontzientziazioa zein izan den azaltzeko. Izan ere, giza komunikazioak natura psikologiko eta soziala du; adimen indibiduala (intenzionalitatea, borondatea, arrazoia, emozioa...) eta soziala (bestea, taldea, semiosfera...) bere gain hartzen dituelako, banandu ezinik (Aguado, 2004:144).

■ DISKURTSOA

Hasteko, mugimenduen garatutako diskurtso ideologikoen analisi bat egin behar da, gizartean eragina duen lehenengo gauzatariko bat delarik. Nahiz eta aukeratu direnak hiru kasu ezberdin izan, mugimenduen diskurtso bera partekatzen dute, haien zalaketa objektua berdina delako: auzoetako apustu etxeak eta atzean dagoen sistema kapitalista. Hori dela eta, nahiz eta bereizitako kasuak izan, diskurtso berdin batean sartuko dira batakatzen duena bestearen parekoa delako.

Diskurtsoak jatorri linguistikoa duen arren, haratago doa. Gizabanakoak izaki sozial eta linguistikoa gara eta hizkuntza (hitzez gain, sinboloak barnebilduz) gizarte bizitzarekin elkartean, diskurtsoak eratzen dira. Diskurtso bat ez da esaldi multzo soilik; ideologia, kultura eta testuingurua du; gai baten inguruan esanahiak transmititzen eta jokabideak proposatzen dituzten laburpen edo sintesiak dira (Manzano, 2005). Foucaultentzat ere, diskurtsoa hizkera baino gehiago da, enuntziatu multzo bat baino gehiago. Bere esanetan, diskurtsoa praktika da eta produkzio testuinguru bat du, formazio diskurtsiboa deritzona. Diskurtsoak praktika sozial gisa definituko ditu ondorioz Foucaultek eta hizkuntza eta hitzetara murriztu ezin direla esango du (Foucault Garay, Iñigüez eta Martínezen testuan, 2005: 109). Diskurtsoa, fenomeno praktikoa, sozial eta kulturala dela dio Teun A. van Dijk hizkuntzalariak eta hizkuntzaren erabilzaileek diskurtsoa erabiltzen dutenean ekintza sozialak burutu eta interakzio sozialetan parte-hartzen dute; elkarrizketan eta bestelako hizketa formetan tipikoki (van Dijk, 2000: 21). Diskurtsoak honela ez dira soilik forma, esanahi eta prozesu mentalak bezala ikasi behar, ezastruktura eta elkarrekintza eta praktika sozialen hierarkia gisa ere (testuinguru, gizarte eta kulturaren funtzioak gain hartuz) (van Dijk, 2000: 26). Hortaz, autore honen teoriarekin jarraituz: Diskurtsoa akzio moduan definitzen da; diskurtsoaren analisi sozialak diskurtso testuinguru batean aztertzen du; boterea gizartean dauden talde harremanak ikertzerako orduan funtsezko kontzeptua da eta ideologiek diskurtso eta gizartearen arteko loturak ezartzen dituzte eta era berean, diskurtsoa beharrezkoa da talde baten ideologiaren erreproduktioarako (van Dijk, 2000: 27).

Horregatik, aurrekoa kontuan harturik, diskurtso bat aztertzerako orduan hainbat gauza aztertu behar dira; diskurtsoa inguratzen duten osagaiak (testuingurua, gaia, agenteak eta produktuak), edukia (ideologia, errekurtso linguistikoa, argudioak, pertsuazio teknikak, akzio proposamenak, sostengu eta legitimazio estrategiak)... (Manzano, 2005).

- Diskurtso publikoaren testuingurua eta edukia

Hasteko, gertakari, ekintza edo diskurtsoa emateko, testuinguru zehatz bat behar da, ingurugiro edo zirkunstantzia bat (van Dijk, 2000). Hori beharrezkoa da guk ekintza ulertu ahal izateko, marko bat beharrezkoa da, giro bat, baldintzak. Diskurtsoa egoera sozial batean gertatzen den zerbait da (van Dijk, 2000: 32). Hemen aztertuko den diskurtsoa, apustu etxeen gorakada sufritzen ari den errealitate sozial batean kokatu behar da, non etekin ekonomikoa bizitza beraren gainetik kokatzen den. Mugimendu hauen sorrera honela, testuinguru zehatz honetan jaiotzen da, bertan elkarrekintza dauden aktore, rol eta ekintzen ondorioz. Eduakirari dagokienez, argi izan behar da diskurtsoa modu askotan garatu daitekeela eta edukian plazaratutako ideiak iturri ezberdinetatik eratorri direla; ahoz edo idatziz; manifestaldi zein irratian; pintada edo sare sozialetan... Aztertuko dugun diskurtsoa zazpi ideia nagusietan laburtu dezakegu, gero garatuz doazenak, hala nola, filosofia indibidualista, ludopatía eta pobrezia, abiadura, konpetentzia desleiala, kontrol soziala, bezero gazteak eta gizarte eredu kapitalista.

Apustu etxeen enpresek jendeak dirua galtzen duelako horrenbesteko irabazi handiak dituztela salatu izan dute mugimendu hauek. Hori da egiten zaien kritikarik pisutsu edo entzunena, pertsona askok sufritzen duten prekarietaren ondorioz, diru gehigarri baten bila apustuetara doazelako bertatik etekinak aterako dituztela pentsatzen dutelako, herritar horiei miseria ekarri. Apustu etxeen *filosofia indibidualista* hori oso kritikatu izan da beraz ("Askatasun pertsonala" edo "bakoi-tza libre da nahi duena egiteko"), prekarietate egoera batetik bakarrik atera ahal izatearen ideia hori, hau da, sistema kapitalistak berak eragiten dituen gabezi eta pobrezia, norberaren erantzukizun bilakatzea eta bakarrik konpondu nahi izatearen ideia. Ildo horretan, apustu etxeak langile auzoetan jartzeak aurreko faktorearekin korrelazioa duela baieztatu dute.

Bide horretan, apustu etxeek *ludopatía eta pobrezia* sortzen dutela diote eta dirua, jendearen ongizatearen gainetik jartzen dutela. Honela dio Azpeitiako Elkar-ekin taldeak zehazki: "Gutxi batzuek dirutza irabazteko pentsatuta daude, diru errazaren ameskeria saltzen dute, arazo ekonomiko larriak sortzen dizkiete herritarrei eta ludopatía bezalako gaixotasunak sortzen dituzte". Ludopatía kasuak gorantz doazela kritikatu dute mugimendu hauek, bereziki gazteen artean eta gainera, kasu askotan, apustu etxeak umeak gertu dauden lekuetan ipintzen dituzte (plazak, eskolak...), hauek normalizatuz. Elkar-ekinek, apustu etxeek "mendekotasuna sortzen duten teknikak" dirua irabazteko erabiltzen dituztela kritikatu dute, "joko arduratsua"-ren mezu hori bultzatzen duten bitartean. Jokua normalizatu eta aisialdirako alternatiba bat bezala ikustearen arriskua azpimarratu izan da ere. "Jokoaren normalizazioak kezkatzen gaitu gehien, eta horrek ludopatiarekin duen loturak" (Judimendiko Gazte Asanbladako kideek, Argia aldizkarian, 2018), "Taberna normalak dirudite. Leku batean makinak dauzkate, baina gainerakoan... Bezero asko gosaltzera edo poteatzera joaten da bertara. Joko-aretoan sartzeak ez du aditzera ematen jokatzera zoazenean, ez dauka konnotazio negatiborik". Elkar-Ekin taldeak Urola Kostako Hitza egunkarian (2018) Bankinter bankuak webgunean honelako gomendioak egiten dituela esan zuten, apustuen merkatuari buruz, hauek zurrutuz: "Kirol apustuak merkatu seguruak dira inbertsioak egiteko orduan. Legeak onak dira eta irabaziak izatea oso posible da, denbora gutxian irabaziak hauek bikoizteko aukerarekin".

Gaur egungo gizartearen *abiadura* ere funtsezko faktorea da apustu etheen arrakasta azaltzerako orduan, izan ere, apustu bat bukatzerakoan beste bat egin daiteke eta apustu bat galtzean berehala berreskuratu nahi da dirua sarritan. Diru azkarra delaren ideia saltzen dute enpresa horiek baina irabazleak eta galtzaileak berdinak izaten dira beti.

Horretaz gain, joko hauek dituzten prezio baxuen ondorioz, ondoko tabernek ezin duten haiekin leiatu, *konpetentzia ez-leiala* gertatuz. “Alokairurik ordaintzen ez duenez, aukera dauka pintxo eta edarien prezioa jaisteko, eta auzoko gainerako tabernek ez daukate horrekin lehiatzerik. Denbora gutxian bi taberna itxi dira hemen, neurri handi batean gosaltzera joaten ziren bezero asko galdu dituztelako, tabernariak eurek kontatu digutenez” (Judimendiko Gazte Asanbladako kideek, Argia aldizkarian, 2018). Horretaz gain, negozio hauek duten gardentasun falta azpimarratu behar da, lokaleko agiri batean 06.00etan irekitzeko eta 01.00etan itxeko lizentzia daukala ipintzeaz arren, ordutegia betetzen ez dutelako eta 05:00etan zabaldu eta 03:00etan itxi egiten dute. Modu honetan, lokala ordu gutxi batzuetan itxita gertatzen da, garbitzeko erabiltzen dituzten bi ordutan soilik eta “bezeroak jokatzeko ari badira, barruan gelditzeko aukera ematen diete” (Judimendiko Gazte Asanblada, Naiz aldizkarian, 2018).

Izaera honetako negozioek *kontrol soziala* handitzen dutela adierazi da mugimenduetatik, joko aretoek bezeroak eta langileak kontrolatzeko kamerak dituztelako. Liskarrak igo direnez, poliziaren presentzia auzoan handiagoa da (droga trafikatzailerak, istiluak...). “(...) Ondoriozta dezakegu presentzia hori handitzeak ez duela auzokideak kontrolatzeaz aparte bestelako helbururik, izan ere, jakin badakigu droga trafikatzailerak ibili izan direla tabernan eta inguruetan euren negozioak egiten lasaitasun osoz” (Judimendiko Gazte Asanblada, Naiz aldizkarian, 2018). Gainera, langileek lan-baldintza kaxkarrak dituztela kritikatu izan da: “Batetik, tabernari laguntzaile kontratuak sinatzera behartzen dituzte, baina, gero, tabernarien eginkizun berdinak daukate. Eta kontratuetan zehaztutako orduetaz aparte, ordu estrak sartzen dituzte, nahiz eta askotan ez dizkieten ordaintzen. Bestetik, kontratuan sinatutako soldata ez diete esandakoan ordaintzen. Hilabete hasieran kobratu beharko luketen arren, atzerapenarekin egiten dute beti eta langileak ibili behar dira euren soldata exijitzen”; «Lan baldintza kaskar hauen ondorioz langile askok taberna uztea erabaki dute, eta, gaur egun, lan bera egiteko hasieran kontratatuta zituzten langileen erdia dituzte kontratatuta. Gainera, jasaten duten kontrola ikaragarria da (...) Azkenik, langile emakumezkoek behin baino gehiagotan jasan behar izan dituzte bezeroen jarrera matxistak, emakume izate hutsagatik” (Judimendiko Gazte Asanblada, Naiz aldizkarian, 2018).

Bezero gazteek apustuak egiteko gai izatea, bestelako arazo bat da, 18 urte baino gutxiago dituzten gazteak aurki daitezkeelako. “(...) Gazteria arazo honen biktima izatea ez da kasualitatea” (Eragin, bere webgunetik, 2018), “Apustu etxeek iragarkietan eta kirol taldeetan duten presentziaren gorakada esponenzialak apustuaren onarpen soziala handitu eta jokorako joera indartzeko bultzada izan da. Gaur da eguna non Erreala den era honetako babeslerik ez duen La Ligako talde bakarra”.

Azkenik, mugimendu hauetatik negozio hauek dakarten bizitza ereduari kritika egin zaio, bizitzaz urrun, irabazi ekonomikoak erdigunean ipintzen dituen *gizarte eredu kapitalistari* alegia (langileen esplotazioa, konpetentzia desleiala eta merkatu lokalaren zapalkuntza, adikzioa eragiten duen aisialdi eredu berria, indibidualismoa, harreman inpersonalak,

drogak, miseria eta prekarietatea...).

Guzti honen aurrean, batez ere gazteengan zentratzen diren dinamikak aurrera eramaten dituzte mugimenduek, kontzientzia pizteko eta aktibazio soziala sortzeko. Eragin taldeak gainera, "gizarte zibil eta instituzioetatik aputu etxeak auzo eta taldeetatik desagertarazteko erremintak aurkitu behar direla" dio. Hala, betebeharrak batzuk plazaratu dituzte; kirolen apustuen publizitatea debekatea (Italian egiten hasi diren bezala), adingabeek apustu egiteko dituzten erraztasunekin bukatzeko neurri zorrotzak jartzea eta ludopatia gaixotasun bat bezala tratatzea izatea besteak beste. Ikusi daitekeen bezala, diskurtso honek langileria klasea bildu eta egoeraz jabetzea bilatzen du, apustu etheen inguruko kontzientzia piztuz eta identitate kolektibo bat eratuz.

Atal honekin bukatzeko, esan behar da diskurtsoak eta bere edukiak ideologia bat duela, kasu honetan ideologia dominantearen aurkakoa dena. Mugimendu sozial hauen ideologia sistema kapitalistak dituen gaitzen kritika eta salaketatik jaiotzen da, testuinguru horretan. Bidegabekeria den egoera baten aurrean eratzen da, hori kritikatu eta aldatzeko. Ideologiak oso garrantzitsuak dira talde bateko kideak modu antzeko batean jokatzeko, zereginetan kooperatzeko eta talde kohesioa, solidaritatea eta taldearen erreproduzio arrakastatsua emateko (van Dijk, 2000: 52). Koordinazio eta solidaritate horrek boterea ekarriko dio taldeari, kasu honetan, mugimendu sozialei. Hortaz, ideologiak funtzio sozialak ditu; izaera soziala dutelako (ez dira solik pertsonal edo indibidualak) eta talde, antolakuntza edo beste kolektibo batzuetako kideek partekatu behar dutelako. Ideologia, hizkuntza bezala talde baten barruan ematen diren praktika sozialak koordinatzeko balio du (barne xedeak: barneko kideen arteko komunikazioa sustatu) baina horretaz gain, hizkuntzak ez bezala, beste taldeetako kideekin egiten den interakzioa koordinatzeko balio du. Hots, ideologiak alde batetik taldeak eta bestetik hauek estruktura sozial konplexuetan duten posizioa definitzen ditu. Taldeko kideek haien interesak babesteko erabiltzen dute identitate sozial hau (van Dijk, 2000: 52). Gainera, garrantzitsua da ideologia dominantearen aurkako izaera hori azpimarratzea, izan ere, mugimendu sozialek legitimitate soziala lortu nahi duten heinean, sistema dominantea eta ondorioz, indarrean dagoen ideologia deslegitimatuta nahi dute. Deslegitimazioa hala, boterea izateko beharrezkoa den autoritate edo jabetza murriztu edo suntsitzen duen prozesua da (Nisbet eta Habermas Apodaka eta Villarrealen testuan, 2005:8).

- Diskurtsoaren argudiaketa

Diskurtso bat erabiltzen denean, posizionamendu bat eta diskurtso horren legitimazioa bilatzen da. Sortutako diskurtsoa, errealitatearen isla gisa erakusten da eta horretarako, elementu linguistiko eta diskurtsiboak erabiltzen dira. Hitzak, nahiz eta irudi eta soinuaren teknologia oso aurreratua dagoen, influentzia bitartekari aporposena izaten jarraitzen du (Nieto Manzanoren testuan, 2005). Diskurtsoek, honen erabilera egiten dute eta hauek aplikatzeko moduak oso esanguratsuak izan daitezke (zein hitz erabili mezua nahi dena izateko...). Legitimazio diskurtsiboak honela, ekintza baten onarpena bilatzen du (Poblete, 2011) legitimazioa onarpen normatibo baten bilaketa bezala ulertuz (Martín Rojo eta van Dijk, Pobleteren testuan, 2011). Legitimazio estrategia orokorrak, errekurtsio diskurtsibo, lexiko, gramatikal (edo beste zenbait forma linguistiko) multzoak dira, diskurtsoaren bidez ekintza politiko-sozial bat balioztatze helburua dutena (van Leeuwen, 1996; Martín Rojo &

van Dijk, 1998; Martín Rojo, Pardo & Wittaker, 1998; Martín Rojo, Pobleteren testuan, 2011). Zentzu horretan, legitimazio estrategia ezberdinak daude, apustu etheen aurkako mugimenduetan ere nabarmendu daitezkeenak hala nola, “gu” eta “haiek” arteko aurkaritza pronomiala (polarizazioa gertatzeko izenordainak erabili...), “bestearen” aurkezpen negatiboa eta “gu” horren aurkezpen positiboa (“nire taldeak” ezaugarri positiboak dituela ziurtatu nahi da)... beste batzuen artean (Poblete, 2011).

“Empresarios, entre los cuales también hay dirigentes políticos, se han aprovechado de la situación de empobrecimiento y necesidad de los trabajadores para meter en los barrios y pueblos lo que podemos denominar “la nueva *ruina* de la juventud”, que así además lo ve cada vez más gente” (Eragin, Eusko Legebiltzarrean, 2019).

Kasu honetan, aurkariaren errepresentazio negatiboa oso bistakoa da:

Aurkaria “Haiek” → Enpresariak.

“Gu” edo defendatutako subjektua → Langileak.

Ekintza negatiboa → Langileen egoera prekarioa erabili dirua irabazteko.

Horrela, “ruina” bezalako hitzen erabilera eginez, antagonisten irudia gehiago zikindu edo deslegitimatzen da, gorrotoa handitu egiten da, aurkariaria gaiztoa delaren ideia sendotuz. “(...) así además lo ve cada vez más gente” esaldia gehituz, kolektibotasun eta herritar askoren onarpenaren erreferentzia egiten da, kantitatezko argudioa bat izanik, non gehiengoak pentsatzen duena pertsuaziorako argudio gisa erabiltzen den (sen ona erabiltzen da hau indartzeko) (Santanusana eta Castellà, 2014).

“En cuanto al ocio, destacamos que mientras algunos ayuntamientos se dedican a cerrar gaztetxes o sitios autogestionados, existe una permissividad total con los locales de apuestas que, con precios por los suelos (...), atraen a muchísimos jóvenes (...)” “Cada día son más los ciudadanos que ven esto como uno de los mayores problemas para la juventud, mientras tanto la única decisión trascendental que se ha adoptado, además de realizar un estudio sobre el tema del parlamento es limitar, porque no es quitar, la publicidad en Euskal Irrati Telebista” (Eragin, Eusko Legebiltzarrean, 2019).

Aurkarien erabakia mespretxatzen da, laguntzen dutelaren diskurtso horrekin, benetan “ezer” egin ez dutela salatuz eta hare gehiago, egoera horrekin etekin ekonomikoak ateratzen dituztela argitzen dute. “Cada día son más los ciudadanos (...)” esaldia berriro ere erabili egiten da babes soziala eta zilegitasuna indartzeko, sostengu soziala izateak legitimitatea eta egiatasuna ematen diolako diskurtsoari. Kantitatezko argudio honekin, geroz eta pertsona gehiagok mugimenduari zilegitasuna ematen diola esaten da eta ondorioz, arrazoia izateko probabilitateak handitu egiten dira. Kantitatezko argudioak garrantzitsuak dira ekintzak partikular edo indibidualetatik ekintza kolektiboetara igarotzen direlako.

“Krisialdi egoera batean beti aprobetxatzen da, edo aprobetxatzen dute enpresario batzuek (...) beraien negozioa egiteko” Igor Meltxor, Azpeitian emandako hitzaldian, 2018.

Osasunari erreferentzia egiten dioten argudioak ere nahiko ohikoak dira mugimendu hauen diskurtsoetan, osasuntsua eta onuragarria, kaltegarriaren gainetik ipintzen delako (Santassana eta Castellà, 2014), osasun publikoaren alde eginez, “(...) ludopatia bezalako gaixotasunak sortzen dituzte” (Elkar-Ekin Argia aldizkaritik, 2018).

Horretaz gain, “egiaren” erabilera egiten da, edo beste hitz batzuetan esanda, “egia” kontsideratzen diren usteak (gureak), besteek “egia” bezala ulertzen dituzten usteen aurka jartzen dira (Fuentes, 2012). Ildo horretan, batentzat ezagutza eta egia dena, bestearentzat iritzi soilak dira; egia ideologiarekin loturik doa baina unibertsala balitz bezala aldarrikatzen da, konfrontaziorako argudio gisa erabiliz (Fuentes, 2012). Egia hori defendatzeko, datuak, baieztapenak... erabiltzen dira, besteen diskurtsoa ukatuz edo “gezurra” bezala definituz. Martín Rojo eta Van Dijk (2007) autoreek, hori legitimazio estrategia dela diote eta erasorako mekanismoa ere bilakatu daiteke, besteei egia esaten ez dutela leporatzerakoan, gezurra esaten dutela salatzerakoan edo demagogia erabiltzen dutela esatean (Fuentes, 2012). Egia argudiaketarako tresna gisa erabiltzerakoan, esperientzia propioa ere erabili egiten da, argudioak indartzeko.

“Yo mismo he estudiado en la escuela de Indautxu y en el instituto también, el central de Unamuno y en el caso de la escuela a cinco metros hay un salón de juego y en el caso del instituto a cincuenta metros también hay otro salón de juego. (...) Y esto se repite prácticamente en la mayoría de barrios que hemos preguntado a amigos (...)” (Mikel Ruiz Oar-Arteta, Bilboko Gazte Prekarizatuaren Asanbladako kidea, Eragin, apustu etxeek ikastetxeetatik gertu duten kokapenaren inguruan, *Está Pasando*, ETB2, 2019).

“Y nosotros, la gente que tenemos alrededor que juega o que hemos visto que ha jugado siendo incluso menores, lo vemos claramente, no se juega por diversión; se juega por tener dinero” (...) “Es un problema económico de los jóvenes que no tienen y, además nos constatan la gente que ha trabajado o que está en los salones de juego nos lo constatan; los días en los que se reciben subvenciones o ayudas sociales, los salones de juego están llenos, porque la gente se juega hasta las ayudas públicas que reciben (...)” (Eragin, Eusko Legebiltzarrean, 2019).

Esperientzia propioak, egiazkotasuna ematen dio diskurtsoari, bigarren mailako iturrien beharrik ez duelako eta lehenengo pertsonako esperientzia gordinagoa delako. Lehenengo mailako esperientziak gainera audientzian inpaktu handia dute.

“Santiago comenzó con el poker online cuando tenía 14 años. «Empecé a lo grande, con una suplantación de identidad: la de mi madre. Yo sabía que jugaba para no ganar nunca, porque a mi madre no iba a decirle que le había robado los datos para jugar al poker. Lo que inventaba mi cerebro es que: ‘Voy a ganar tanto dinero que algún día podré decírselo’». Con el móvil, dejaba una apuesta hecha por la noche, y a las 2 de la mañana, por ejemplo, miraba cómo iba. Porque online se puede apostar durante las 24 horas. A los 16, cambió de gustos.

«Empecé con las ruletas tragaperras y, cuando llegaron las apuestas deportivas, prácticamente el 100% de lo que jugaba era a estas. ¡Esa sí fue la droga buena! Su potencial de adicción es mucho mayor por la inmediatez que produce: estás jugando de forma interactiva, interactuando en directo». (Naiz aldizkariko erreportajea, 2019).

Emozioak, azeleratzaile eta anplifikadore bezala funtzionatzen dute, hau da, zerbait bizkorrago mugiarazteko eta ozenago entzunazteko ahalmena dute eta protesta munduan, emozioak oso erabilgarriak dira ekintza azkarragoak aurrera eramateko eta arrazoi indartsuagoak izateko (Stekelenburg eta Klandermans, 2013). Hori horrela izanda, lehenengo mailako esperientziak edo bizitza historioak erabiltzen dira defendatzen edo kritikatzeko diren ideiak indartzeko eta jendeari empatia eta sentimenduak sortzeko. Datuetaz gain esperientziak erabiltzean, arazoa humanizatu egiten da eta jendeak gertuago ikusi dezake, arriskuaren jabe izango da eta iritzi azkarrago bat izango du. Testigantza errealak erabiltzen dira hortaz diskurtsoari sinesgarritasuna gehitzeko.

Asko erabiltzen den argudio mota, autoritatezko argudioa edo argudio zientifikoa dira:

“Eso lo que acarrea, y hay estudios realizados y por eso se dice que la banca siempre gana, eso trae una adicción, no a todo el mundo, pero sí a mucha gente, que va a terminar jugando muchísimo dinero y estamos viendo cómo muchos jóvenes; las estadísticas dicen que tres de cada diez juegan, pues uno de cada diez va a poder tener problemas de adicción, engancharse y arruinarse la vida (...)”, “(...) es lo que vienen pidiendo muchos expertos, es que la ludopatía se trate también en la seguridad social (...)” (Mikel Ruiz Oar-Arteta, Bilboko Gazte Prekarizatuen Asanbladako kidea, Eragin, gazteen ludopatiaren inguruan, *Está Pasando*, ETB2, 2019).

“Ludopatiaren aurkako elkarrekin maiz eskatu dute antzeko lokalen irekiera erregulatzeko, baina...” (Elkar-Ekin, Argia aldizkaritik, 2018)

Gai batean «autoritatea» kontsideratzen den norbaiten iritzia hartzen duen argudio mota da hau, non zerbait egia dela esaten den, aditu batek esaten duelako, azken hau autoritatea izanik. Aditu baten iritzia edo datu nahiz gertakari zehatzak erabiltzea, ukaezinak diren argudioak formulatzeko erabiltzen dira, frogatuak dauden datuetan eta estatistiketan oinarritzen direlako. Modu honetan, argudio arrazional edo zientifikoak pentsamendu bat sostengatzeko erabilgarriak dira (Santanusana eta Castellà, 2014) eta “egia” hori frogatzeko helburua dute.

“Para dar algunos datos, que sacamos de un estudio realizado por la universidad de Deusto, el 33% de los jóvenes apuestan o han apostado o digamos que tienen esa tendencia, y de las personas que juegan el 66% son menores de 35 años (...)” (Eragin, Eusko Legebiltzarrean, 2019).

Beraz, adituen ikerketak, datuak... erabiltzeak, zilegitasuna ematen dio diskurtsoari, haien esparruan autoritatezko figurak direlako eta ematen dituzten datuak objektiboak eta errealak direla ulertzen delako gizarrean.

- Identitate kolektibo baten eraketa

Tourain (1978) eta Castellsentzako (1997) mugimendu sozialek hiru printzipio behar dituzte: identitatearen printzipioa (kolektibotasuna), oposizio printzipioa (zeren aurka doazen argitzea, zer aldatu nahi den...) eta totalitate printzipioa (zer lortu nahi den, nola eratu errealitate sozial berria). Identitateak gu nor garen eta nortzuk diren besteak esaten digu eta identitatea gizartean dugun lekua bezala deskribatu daiteke (Simon y col., Stekelenburg eta Klandermansen testuan, 2013). Hala, mugimenduetan kideen identitatea finkatzea beharrezkoa da eta hori ez gertatzekotan, denboran iraungo duen elkartze bat ezingo da mantendu, elementu komunaren garrantzia azpimarratu behar delako (Gómez, 2019). Pizzornok zioen zerbaiten parte sentitze hori lotura bat dela gizabanakoarentzat, horrekin identifikatzea parte-hartzea bultzatzen duelako (Pizzorno Garcíaen testuan, 2013). Horren harira, Alain Tourainek zioen (1997) mugimendu sozialak ez direla zuzenean sistema politikora bideratzen, baizik eta identitate baten eraikuntza bat bilatzen dutela, norbera eta gizartea produzitu ahal izateko (haien gainean jarduteko) (Touraine Chihuren testuan, 1999). Kurt Lewin filosofo eta psikologoak (1890) gizabanako batengan taldeak duen eragina aztertu zuen ere eta "taldea gizabanako sorta bat" ez zela adierazi zuen, "mundu sozialaren pertzepzioan eragiten duen harremanen sare bat" baizik (Lewin Agudoren testuan, 2004: 151). Hare gehiago, autore honen arabera, gizabanako baten jokaera aldatu nahi bada, eraginkorragoa da taldean eragitea, gizabanakoa modu isolatu batean aldatu ordez (aguado, 2004). Ikusi daitekeenez, gizarte mugimenduetan harreman sozialak eta dimentsio sinbolikoak pisu handia izango du.


Aurrerago esan den bezala, ideologiak izaera kolektibo eta soziala du eta talde bateko kideen kohesioa bermatzeko beharrezkoa da, identitate kolektibo bat sortzeko alegia. Ideologiek pertenezia irizpideak dituzte (nortzuk gara gu? Nor da gure taldeko kide?), ekintza tipiko eta helburuak ere dituzte ("Zer egiten dugu eta zergatik?"), arau eta balioak (Guretzat zer da ona eta zer da txarra?), beste taldeen araberrako posizio soziala (Non gaude gu?) eta taldearen oinarritzko errekurtso sozialak (Zer dugu?). Gauzak horrela, ideologiak interesak erreprezentatzen ditu eta talde bakoitza autodefinitzen du. Talde identitatea osatzeko eta deskribatzeko kategoriak izan behar ditu, pertenezia, jarduerak, helburuak, balioak, kokapena eta errekurtsoak, besteak beste (van Dijk, 2000: 53). Azterketa honen kasuan, apustu etheen aurkako mugimenduek ez dute berez ideologia oso baten eraketa egin, baizik eta kapitalismoaren aurkako ideologia abiapuntutzat izanda, sistema ekonomiko mota honetan gaur egun ematen diren gaitzetariko baten analisia egin da (apustu etxeak) eta horren inguruko planteamendua egin da, pentsamendu bat eratuz edo indartuz. Beraz, mugimendu sozial honen ideologia korrante zabalago baten barruan kokatzen da eta kide eta audientzia militantea, ideologia orokorrako batetik etorriko da. Baina ideologiaren funtzioa berdina izango da, jokabide eta balio komunak sustatuko dira, egoera edo gertakari baten aurrean emango den erantzuna koordinazioan eta kohesioan emateko. Erantzunak ez dira partikularrak edo indibidualak izango, kolektiboak baizik.

Aztertzen gauden mugimenduen mezuen hizkeran arreta jartzen badugu, lehenengo pertsona eta pluralaren erabileran erreparatu dezakegu: "*Larrialdi honen aurrean gazteok kaleak hartzeko beharra dugu, haserrea antolatzeko unea*" (Eragin); "*Los empresarios nos pagan sueldos cada vez más miserables, mientras ellos son cada vez más ricos, y después empresas de juego y apuestas nos roban lo poco que tenemos. Nos roban en el trabajo. Y*

nos roban con el juego” (Eragin, 2018ko azaroaren 12an). Kasu honetan, lehenengo pertsona erabili egiten da irakurlea talde berean sartzeko eta horretaz gain, bistako beste bereizketa egiten da: “haiek” eta “gu”. “Haiek”, enpresariak, aurkariak dira, kritiken objektua eta beste alde batetik, “gu” horrek, taldeari egiten dio erreferentzia, elkartasunari eta kolektibotasunari. Hasieran azaldutako ekintza kolektiboaren diagnostiko markoa da hau (Hunt, Benford eta Snow, Garcíaren testuan, 2013), non aktoreak identifikatu eta banatzen diren, kaltetutako “gu” bat (identitate markoa) eta aurkari bat, “bestea” (injustizia markoa) identifikatuz. Hori, izeordainen erabileran ikusteaz gain, hitz edo kategoriatan ezberdinen erabileran ere erreparatzen da, kolektibotasun hori eraikitzen laguntzen dutena, aurka doazen bi identitate eraikitzeke: hala nola, langileria klasea, auzokideak, herritarrak, gazteria... Hitz hauek talde izaera edo kolektibo baten pertenezkoa azpimarratzeko erabiltzen dira, “gu” bat alegia. Kontrako kasuan, enpresariak, politikariak... askotan “beste” horren parte dira. Kategoriak sortzen dira honela ere eta hartzailearen identifikazioa handitzen laguntzen dute, mezuak gertutasuna erakusteko, defendatu egiten den kausaren identifikatu eta parte-hartzea sustatzeko. Azpeitiako kasuan erabilitako “Zuen dirutza, askoren pobrezia” esaldiak era oso garden batean erakusten ditu kontrajarritako bi interes, bi identitate, eta problematizatzen den egoera bat; “Zuek”, apustu etxeekin interes ekonomiko handiak ateratzen dituztenak eta “askoren” hori, herritarrak, langileak; apustu etheen biktimak direnak.

“Lanean lapurtzeaz gain, jokoan ere lapurtzen gaituzte. Kapitalismoak lanean esplotatuz eta hortik kanpo kontsumitzera bultzatuz funtzionatzen du, gainbalioaren bidez lapurtu ezin izan diguten dirua behar ez ditugun gauzetan xahutu dezagun, apustuetan kasu honetan. Prekarietate eta probetza kezkarrikoko garai hauetan, klase kontzientzia urriarekin eta antolakuntzarako zailtasun askorekin, krisitik irtetzeko bide indibidualak aukera desesperatu gisan aurkezten zaizkigu, edota minik ematen ez duen emoziozko aisialdi batekin” (Eragin bere webgunetik, 2018).

Gauzak horrela izanda, hiru identitate esparru bereizten dituzte Hunt, Benford eta Snow autoreek (Aceros, 2010): antagonistak, protagonistak eta audientzia. Antagonisten eta protagonisten helburua, aurakoa garaitzea eta audientziarekin bat egitea da. Antagonistak, protagonistekiko aurkariak diren pertsonak edo taldeak dira, mugimenduaren aurka daudenak. Aktore hauek, erantzuleak kontsideratzen dira. Protagonistak mugimendua osatzen duten aktoreak dira, mugimendu horren kausa defendatuko dutenak; eta audientzia, ikusle neutralak dira. Inpartzial gisa azaltzen dira baina mugimenduaren ekintzen aurrean erreakzioak izango dituzte. Mugimenduek haien erreferentziazko markoa parte-hartzaile potentzialen interpretazio subjektiboekin elkartzen saiatzen dira, azken hauek identifikatu ahal izateko eta haien mobilizazioa sustatzeko (García, 2013).



Iturria: Norberak egina

Talde baten identifikazioa protestarako oso baliagarria da hasteko, partekatutako antzekotasun eta xedeak dituztelako kategoria berean dauden pertsonen. Horretaz gain, identitate baten "indarra" osagarri afektibo batetik eratortzen da (Ellemers Stekelenburg eta Klandermansen testuan, 2013); taldea geroz eta gehiago "nirekin" (edo nigan, "en mi") egon, "haienganako" sentimenduak handiagoak izango dira (Yzerbyt et al., Stekelenburg eta Klandermansen testuan, 2013) eta taldearen izenean parte-hartzeko motibatuagoa sentituko naiz (Stekelenburg eta Klandermansen, 2013). Partekatutako emozioek, identifikazioak eta patuak, taldearen parte den gizabanakoari kide "on" bat bezala jokatzeko barne beharra sortzen diote (Stürmer eta Simon, Stekelenburg eta Klandermansen testuan, 2013). Talde identitatea, identitate politizatura heltzeko lorbidet bat da azken autore hauentzako. Beraiek dioten bezala, identitate kolektiboak politizatu behar dira akzio kolektiboaren motorra izateko eta normalean, identitate hauen politizazioa partekatzen diren bidegabekeriekin hasten da, hau da, hasieran esan bezala, egoera bat "bidegabekoa" bezala definitu behar da protesta akzioak sortzeko, hori lehenengo baldintza izanik (Klandermansen, Garciaren testuan, 2013). Ondoren, kanpoko aurkari bat definitzen da, bidegabekeria den egoera hori leporatzeko eta erreklamazio nahiz kexak formulatu egiten dira. Ez bada horrekin ezer lortzen, borroka aurrera doa; identitateen politizazioa eta boterea lortzeko lehiak hedatzen dira eta taldeak bere inguruarekin duen harremana eraldatzen doa (Poletta, Stekelenburg eta Klandermansen testuan, 2013). Langnerrek politizatutako identitate kolektiborako neurri bat garatu zuen eta kideak geroz eta politizatuagoak egon, gobernu edo publiko batera

bideratuta dauden akzio kolektiboetan parte-hartzeko probabilitate handiagoak dituela adierazi zuen (Stekelenburg eta Klandermans, 2013).

Geroago sakonago aztertuko den bezala, sare sozialak jendarte kohesiorako herreminta oso baliagarriak dira, pertsona asko elkartzea lortzen dutelako eta talde izaera handitu egiten delako. Hauen analisia eginez, mugimenduetan dauden posizioen, mugimenduen eta aktoreen berri izan dezakegu eta aktore batek duen influentzia soziala zein den jakin dezakegu (zenbat jarraitzaile dituen, zer nolako eragina duen -positiboa, negatiboa-, eragiten dituen erantzun ezberdinak...). Gainera, sare sozial informalek errekrutatzen duten gaitasun horrek talde edo identitate kolektibo bat eratzen ahalbidetzen du. Sareak mugimenduaren liderrei marka pertsonal bat eraikitzen ahalbidetzen die eta erreputazio digital positibo bat eraikitzearen beharra, konfidantza sortzeko bide bat bilakatzen da (Cárcar, 2014). “Ni” digital bat garatzen da audientziarekin espazioak partekatzen, identitate digital bat. Apustu etheen aurkako mugimenduetako aktoreek sare-sozialak erabili egiten dituzte: Eragin taldearen Instagram profilak bataz beste 2.979 jarraitzaile ditu eta Twitterreko kontuak beste 4.445; Azpeitiako Elkar-ekinek bere partetik Twitterren 994 lagun bildu ditu eta Instagramen ehun baino gehiago dira eta Judimendiko Gazte Asanbladak Twitterren 1.089 jarraitzaile ditu, Instagramen gutxi gorabehera 734 dituen bitartean. Interneten web orrialdeak dituzte ere (Eraginen <https://eraginbilbo.eus/>; Judimendiko <https://judimendigazte.wordpress.com/>) non iritzi artikulak edota mobilizazioen berri ematen duten. Sare sozialetan, interakzioa, elkartasuna... ematen dira eta talde izaera hori hazi egiten da, audientziara bideratutako mezu zuzenak eta sinbologiak erabiliz.

Mugimendu sozialak beraz, mugimendu identitarioak dira eta ekintza kolektiboko prozesuetan, identitatea mugimenduaren indarra lortzeko helburua bilakatzen da. Gainera, identitate alternatibo baten eraketak, kultura dominanteen balio eta estruktura baztertertzea dakar, balio eta estruktura alternatiboak indartzeko (Chihu, 1999). Komunitateak sinbolo eta diskurtso sinboliko komunak ditu eta diskurtso hori kideak diren eta kideak ez direnen arteko mugak handitzen ditu, muga sinbolikoen garrantzia nabarmenduz (Chihu, 1999).

■ KOMUNIKAZIO ESTILOA ETA BITARTEKARIAK

Diskurtso bat jendarte batera heldu behar da eta mezuak haiengan inpaktu bat izan behar du, zilegitasuna izan behar du eta audientzia konbentzitu beharrean dago. Ze teknika erabili daitezke pertsona talde bat konbentzitu ahal izateko? Ze estilo erabiltzen da mezua bidaltzeko? Zergatik dute komunikazio moduek gizabanakoen ikuspegietan eragina? Komunikaziorako modu, bitartekari eta estrategia asko daude eta atal honetan, mezua nola zabaltzen den ikusiko da. Teoria sozial kognitiboak dioten bezala, sinboloen elkartrukean parte-hartzen duten eta komunikazio sozialaren edozein forman dauden mekanismo psikosozialek giza pentsamendu eta ekintzan eragina dute (Bretones, 2008). Komunikazioa hitzik gabekoa (izaera bisualezkoa...), edo hitzezkoa (talde murrutzu batetik publiko zabal batengana zuzendua dagoena; aldiberekoa eta zuzena, formalizazio gradu batekin eta interes batzuen defentsan) izan daiteke (Aguado, 2004). XXI. mendeko mugimendu sozialek *offline* eta *online* dimentsioak bateratzen dituzte. Sare sozialek aktibismo politikoaren dimentsio komunikatiboan eragin handia dute eta plataforma hauek komunikazioak politikan duen papera indartzen dute (Casero, 2015). Modu honetan, mobilizazio eta aktibismo mota berriek plataforma digitalak erabiltzeaz gain, *offline* eta *online* espazio eta errekursoak

konbinatu egiten dituzte eta bertan egiten den lan estrategikoak komunikazioetan garrantzi handia izango du, komunikabideek zabaltzen duten informazioa («establishment» baten zerbitzuan) alde batera uzteko eta audientziaren iritziarekin bateratu ahal izateko (Álvarez eta Nuñez, 2016).

- *Online*: Espazio birtualetan

Esan bezala, komunikazio estiloan internetek eta sare sozialek duten pisua nabarmendu behar da. Hauek, alde batetik konexioa eta bestetik maila nazional zein internazionalako mugimendu demokratikoen formen, praktiken eta mezuen hedatzea ahalbidetzen dute (Castells Pleyers testuan, 2018). Mugimendu sozialek haiek argitaratzen edo partekatzen dutenaren kontrola izan nahi dute, bitartekaririk gabe mezua haiek nahi duten bezala heltzeko eta internetek aukera hori eskaintzen du, berehalako komunikazioa bermatzen duelako (Castells Cárcarren testuan, 2014). Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) honela, antolaketaren funtzionamendua hobetuko luke, mugimendu baten kideen lan kolaboratiboa errazten duelako eta hauen egoitzen arteko komunikazio korporatiboa ere hobetzen duelako. Horretaz gain, horizontaltasuna eta parte-hartze zuzena egotea nahi da, isolamendu sentzazioa baztertuz eta talde kohesioa handituz (komunikazio bidirekzionala eta aldiberekoa), oso kostu baxu batean (Cárcar, 2014). Hala ere, horizontaltasun eta parte-hartze hori askotan ez da lortzen eta mundu “errealeko” edo fisikoko ezberdintasun estrukturalak proiektatu egiten dira (arrazismoa, autoritarismoa, korrante kontserbadoreak... Pleyers, 2018). *Online* aktibismoak askotan kale eta plazetako mobilizazioak indartu egiten ditu eta Castellsek “babestutako espazio” baten garrantzia azpimarratzen du, non “indignaziozko sareak” eraikitzen diren eta espazio pribatu eta birtualetik, plazetako espazio publikora igaro ahal den (Castells Pleyers testuan, 2018). Baina betiere *offline* eta *online* espazioek lotura izan behar dute internet, kaleetako aktibismoa bultzatzeko herreminta gisa erabiltzeko eta errealitatearekiko “deskonekzio” bat ez gertatzeko.

Modu honetan, internet inguruko argitze batzuk egin behar dira mugimendu sozialekin duten harremanari dagokionez (Pleyers, 2018): 1) Interneten erabilerak ez ditu espazio fisikoetako mobilizazioak ordezkatu, guztiz kontrakoa, hauen aldarrikapena egiten du; 2) Nahiz eta internet espazio birtual globala izan, bere erabilera mugimendu nazional eta lokalak eraikitzen bideratu izan da; 3) Sare sozialak eta internet ez dira komunikabide tradizionalak eta ikusgarritasun eta inpaktu handia izan ditzakete.

Lehen esan bezala, apustu etheen aurkako mugimenduak antolatu dituzten talde zein kolektiboek sare sozial eta interneten erabilera egiten dute, heuren diskurtsoa era azkar batean zabaltzeko eta mobilizazioen berri emateko, modu errazago batean. Sare sozialetan eta interneteko bestelako web orrialdetan eragina izatea lortu dute eta modu honetan, internet komunikaziorako bitartekari gisa erabiliz, gertutasuna transmititzen duen hizkuntza, irudiak, leloak, esaldi laburrak, sinbologia... erabiltzen dituzte irakurlearen arreta deitu eta mezua azkarrago iristeko. Sare-sozialetan partekatzen diren mezuak argiak izan behar dira, deigarriak eta zuzenak eta horretarako letra larriak, *hashtag*-ak (#NoEsLoQueHay, #QueNoTeExploten, #noalalascasasdeapuestas, #apustuetxerikez), mezu zuzenak (Auzo


botereaz lortuko dugu!; Jokoa gure kaleetatik desagertu arte borrokan jarraituko dugu; Gazteok nazkatu gara!;)... erabiltzen dira.

1. IRUDIA: Auzoko bizilagunek aurkeztutako "Judimendik joko aretoari ez" dinamika berria



Iturria: Twitter
(@JudimendikoGA)

2. IRUDIA 2: Elkar-Ekinek Azpeitian deituriko kontzentrazioaren kartela,



Iturria: Twitter
(@ElkarEkin)

3. IRUDIA 3: Eraginek Apustu etheen aurka antolatutako manifestazioaren kartela



Iturria: Twitter
(@EraginBilbo)

Horrela, internet ez da aparteko plataforma bezala erabiltzen, jarraikortasun bat du eta *online* eta *offline* esfera horiek ez dira zertan bananduak egongo, ez dira kategoria dikotomikoak, lagungarriak edo osagarriak baizik (kalean egongo diren mobilizazioen berri ematen denean, kanpoko esperan gertatuko denaren informazioa zabaltzen da, hedapena izateko). Interneteko plataformak erabiltzeko modu honek kideen identifikazioa ahalbidetzen du ere, mugimendu sozialetan premiazkoa den identitate kolektiboa alegia. Izan ere, mugimenduek komunikatzeko duten estiloan, gertutasuna, bizkortasuna, klase kontzientzia, elkartasun sentimendua... nabarmentzen dira eta modu horretan, sare-sozialetan duten presentzian eta lehen azaldutako diskurtso ideologikoan, kolektibotasun bat eratzen dute. Gainera, hori oso baliagarria da sare sozialetan, kidetasun hori lortzen baldin bada (Twitterren *retweet*-en bidez esate baterako), mezua are gehiago zabalduko delako.

Orduan, bitartekari digitalei esker, mugimendu sozialek ez dituzte soilik haien mezuak zabaltzen, hedabideen propagandari aurre egiten diote (Gelders & Ihlen, Álvarez eta Nuñezen testuan, 2016) eta praktika eta aktore berriak eraten dituzte, gizartean politika konbentzionaletik ateraz (Castells Álvarez eta Nuñezen testuan, 2016). Sare-sozialek berehalakotasun eta elkarreragite horri esker arrakasta izateaz gain, beste bi balore determinantek erantzukizuna dute ere; sinisgarritasuna eta enpatia, zeintzuk hedabide popularretan lausotuz joan diren. Pertsonen arteko komunikazioa gainera, plataforma digitaletan ematen den bezala, jendartean sinesgarritasun handien eragiten duena da hainbat ikerketen arabera (Lovett et al, Álvarez eta Nuñezen testuan, 2016), lehen mailako edo ahoz ahoko informazioa kontsideratzen delako (Álvarez eta Nuñez, 2016), bitartekaririk gabea. Sinesgarritasun edo zilegitasunaren ideia hori oso inteteresgarria da, izan ere, hedabide konbentzionalek errealitate legitimoaren jabeak kontsideratzen dira, iturri "ofizialak" edo egiazkoak, baina beste alde batetik, orden soziala eta dominazioa legitimatzen dutenez eta kompetentziazko logitetan murgilduta daudenez (interes ekonomikoak, ideologikoak, kanpoko indarrak eta influentziak...), gizartearen konfiantza

urratu dute. Honela, zenbait kasutan, komunikabideetan konfidantza galdu eta haiekiko kritikotasuna handitzen da (zilegitasuna bestelako alternatibek -aztertzen gaudenak bezalakoak- bereganatuz).

Hortaz, plataforma birtualek aktibistei haien eduki propioak produzitu eta hedatzeko aukera eman diela esan daiteke eta honekin batera, autonomia margen handiagoa duten aktore komunikatiboak bihurtu dira (Casero, 2015). Autonomia hau bereziki garrantzitsua da hori esker hegemoniaren aurka doan narratiba kritiko propio bat garatu dezaketeelako, haien interesak adierazteko, ahotsik ez dutenei ahotsa emateko eta elite dominanteen aurka egiteko (Fuch, Caseroren testuan, 2015). Espazio birtualetako partaidetzak hiritarrei eta aktibista politikoei bizitza politikoan parte-hartzeko ahalmen berria eskaini die eta horregatik, kontrabotere forma ezberdinak eratuz doaz (Casero, 2015). Komunikabideek eraikitzen duten errealitate hori zalantzan jartzeko ahalmena izan dezakete mugimenduek jendearen konfidantza irabazterakoan eta hauek legitimitatea irabazten duten heinean, alderdi politikoei, gobernuari, komunikabide tradizionaleri... «establishment» horri, nolabaiteko legitimitate soziala kentzen diete, moralitate aldendu egiten direlakoan. Esate baterako, 2019. urtean Twitter sare-sozialean PNV eta jokoak dituen harremanak salatu zituzten hainbat erabiltzailek eta mezu hori askotan partekatu zen. Sare-sozialetan honela, hedabide tradizionaletik aldentzen den beste errealitate bat eraikitzen da, non azkenengo hauek guztiz deslegitimatua dauden eta egia jada, telebista edo irratitik ateratzen ez den. Estrategia da hori, izan ere, sareetan salatutako datu horiek ez dute bat egiten komunikabide konbentzionalen emandako irudiarekin eta hiritarren haserrea handitzen da, engainatuak sentitzen dira eta haiekiko konfidantza txikitzen da, besteenganakoa (mugimenduetako aktoreena) handituz. Autoritatea eta bere boterea honela, pixkanaka indarra galduz doaz.

Bukatzeko, esan beharra dago hiritarrek berriak eta edukiak interneten bitartez era ireki eta eskuragarri batean partekatu eta zabaldu ahal dituztenez, komunikabide konbentzionalen arretea deitu dezaketela. Honela, agenda mediatikoaren parte bilakatu daitezke eta aktibistek, komunikabide konbentzional horiek haien gaiak, aldarrikapenak edo diskurtsoak ikusgai bihurtzea lortzen dute (Casero, 2015). Horrela gertatu da esate baterako Euskal Telebistak egindako erreportai edo berriekin, non mugimendu hauen eragina nabaria den.

- *Offline*: Espazio materialetan

Mezuak zabaltzeko beste modu asko daude eta hirietako espazio publikoak protestarako toki bilakatzen dira. Izan ere, azken hamarkada hauetan, formazio politiko zein sozialetarako espazioak eta hiriak duen garrantzia askotan azpimarratu da (Sevilla-Buitrago, 2014). Interesgarria da Judith Butlerrek espazio publikoen inguruan esandakoa (2011), izan ere, bere esanetan, errazagoa da manifestazio edo mugimenduak espazio publiko batean eskari bat egiteko gorputzak biltzen dituztela esatea baina ideia horrek espazio publikoa emanda dagoela eta publiko bezala ulertzen dela uste du; baina espazioaren izaera publiko hori eztabaidan dago eta jendetza biltzen denean ere espazio hori lortzeko borrokatzen da (Judith Butler Sevilla-Buitragoren testuan, 2014). Beraz, kaleko protestetan ez dira soilik eskari batzuk aldarrikatzen, baizik eta espazio publikoaren okupazioa egiten da, izaera publiko horren erabilera egiteko eta protestarako espazio propio bilakatzeko. Akzio politiko honela, espazioan egiten den borroka izateaz gain, espazio hori lortzeko egiten den borroka da (“una lucha por y con el espacio” Sevilla-Buitrago, 2014: 210), hau da, hori antolatzeko

gaitasun, abilezia eta kapital sozialak berreskuratzeko lehia. Kanean biltzen diren gorputzak espazioa birantolatzen dute eta existitzen den estatuaren aparailuaren legitimazioaren aurka egiten dute (Sevilla-Buitrago, 2014).

Honela, akzio kolektiboak forma anitz izan ditu ikertutako hiru leku geografikoetan:

- Mobilizazioak: Mobilizazioa, manifestatzaile multzo bat bide publikotik mugitzeari deritzo (Rebón, 2014) eta protesta forma klasiko bat da, gizarte garaikidean leku hartzen duten mugimendu sozialetan gehien errepikatutakoa (Tilly eta Wood, Rebónen testuan, 2014). Tarrow autoreak zioen orden publikoaren alterazioa konforme ez dauden taldeen adierazpen arketipikoa dela (Tarrow, Fernándezen testuan, 2013), berarentzat, alterazio horrek ez du zertan orden publikoa zalantzan jarri behar, baina arazoaren bisibilizazioa, manifestatzaileen determinazioa eta jardueren garapen normala eragozteak dakar (Fernández, 2013). Cruces autoreak dioen bezala (1998), martxa horiek egitea, iruditegi politiko modernoan txertatzea dakar; “desordena” “eskaera” bilakatzen da eta hititarrek balio zibilikoak adierazi ditzakete (Fernández, 2013). Manifestaldiak, kontzentrazioak, batukadak eta kazeroladak antolatu dira Gasteizen, Azpeitian eta Bilbon eta herritarren haserrea erakusteko era zuzena izan dira eta kalera ateratzeaz gain, apustu etheen lokalak ere okupatu izan dira, manifestazioak barruko espazio horretara mugituz eta barruko jarduerak geldiaraziz. Mobilizazio hauek ez dira soilik gazteen partetik etorri, adin guztietako pertsonak bildu dira, kolektibo bakar bateko aldarrikapenak ez direla argi utziz. Geroz eta pertsona gehiago bildu (pertsona talde anitza, heterogeneoa), protestak eta eskakizunak zilegitasun handiagoa izango du, pertsona gehiago identifikatua sentitu ahal delako. Mobilizazioek helburu bat edo gehiago izan ditzake; pertsona talde baten beharrianak aldarrikatzeko edo proiektu baten aurrean ikuspegi positibo bat izatea; pertsona, talde edo kausa bati elkartasuna erakustea; egoera, figura publiko edo gertakari baten aurka protestatzea eta salatzea; bestelako manifestaldi baten aurka joatea (beste ekintza bat indargatzea...); publizitatea edo ekintza bat ezagutzera ematea edo helburu zehatz bat lortzea (ekitaldi bat aldatzea edo sahiestea...). Judimendiko, Azpeitiako eta Bilboko manifestazioak argiak izan dira, apustu etheak auzoetatik ateratzeko helburua dute, protesta eginez eta gertakari hori salatuz. Mobilizazioak honela, espazio publikoaren okupazio politikoa dira.

4. IRUDIA: 2019ko ekainaren 23an egindako manifestaldia, Judimendi



Iturria: halabedi.eus

5. IRUDIA 2: 2018ko abenduaren 15ean egindako kontzentrazioa, Azpeitia



Iturria: Twitter (@ElkarEkin)

6. IRUDIA: 2020ko otsailaren 28an egindako manifestaldia, Bilbo



Iturria: ecuadoretxea.org

- Hitzaldiak eta agerraldiak: Kontzientziazioa pizteko eta jendeak gaiaren inguruan gehiago jakiteko eta informatzeko hitzaldiak eta ekitaldiak antolatu izan dira kolektibo batzuen partetik. Eragin, Elkar-ekin eta Judimendiko gazte asanbladako kideek egoeraren berri emateko agerraldi publikoak, hitzaldiak edota ekartaratzeak antolatu dituzte. Honek, konfidantza eta kolektibitatea indartzen du, hiritarrek informatzen dituztelako eta protestaren parte bilakatzen direlako. Igor Meltxor kazetariak esate baterako, 2018ko urriaren 17an hitzaldi bat eman zuen Azpeitian eta kazetari baten figurak zilegitasuna ematen dio ekintzari, bere iritziak pisu handia izan dezakeelako.

7. IRUDIA: Gasteizko Judimendi auzoko aretoaren aurrean eginiko agerraldia, 2019



Iturria: berria.eus

8. IRUDIA: Igor Meltxorrek Azpeitian emandako hitzaldia, 2018



Iturria: urolakosta.hitza.eus

- Markaje eta pankartak: Espazio publikoak modu askotan erabili daitezke eta askotan, espazio urbanoak erabili egiten dira protesta gisa (hiri-altzariak apurtu, pintadak egin...). Egoera baten aurrean desadostasuna erakusteko teknika dira eta kasu honetan, Gasteizko, Azpeitiako eta Bilboko apustu etxeetan pankartak, pintadak edo "graffitiak"... agertu dira sarritan. Protestarako forma hauek izaera bisuala dute, protestatzen den espazioa, jabetza pribatua, erabili egiten da probokatzeko helburuarekin. Graffiti edo pintadak, manifestazio kolektiboak dira, komunikaziorako beste modu bat. "Zer dago jokoan?" edo "Apustu etxeak kanpora" bezalako esaldi zuzenak egoera salatzen dituzte eta kaleko mugimendu batekin batera sortzen dira, pentsamendu kolektibo batetik aterata.

9. IRUDIA: 2019. urtean egindako markajeak, Judimendi auzoan




Iturria: Ernai Gasteiz

10. IRUDIA: 2018. urtean agertu ziren sinatu gabeko pankartak, Azpeitia



Iturria: Uztarrria.eus

11. IRUDIA: Eraginek tapatutako Pokerstar logoa, 2019



Iturria: Twitter (@EraginBilbo)

12. IRUDIA: Bilboko RETA.bet lokalean jarritako pankarta, 2019



Iturria: uriola.eus/bilbo

■ SOLASKIDETZA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Kolektibo hauek martxan jarritako kanpainia eta inizatibek inpaktu bat izan dute hedabide eta gizartean. Agertoki publikoan presentzia handia lortu dute, apustu etheen gaia mahaigaineratuz eta problematizatuz. Sortutako legitimitatea, ausazkotasun edo arbitrariotasun ezan oinarritzen da (Rebón, 2014). Ekintza batek ez baldin badu legitimitate soziala lortzen, kriminalizatua izateko arrisku handiagoa izango du, orden soziala zalantzan jartzen duen delitu gisa ulertuko delako. Hori dela eta, ekintza batek lortzen duen legitimitatea aktoreen artean balio moralak aktibatzeke duen gaitasunaren arabera izango da (Rebón, 2014). Mugimenduek mugiarazten duten jende kopurua, komunikabideetan izandako trataera, iritzi publikoa... legitimitate sozialean eragina duten aldagaiak dira, jendearen moralarekin bat egin behar dutelako eta esate baterako, komunikabideen onarpena izateak iritzia hobetuko duelako.

Gauzak horrela, mugimenduak legitimitatea duenean, audientzia geroz eta handiagoa izango da, artikulatuz joango da. Mugimendu hauek jendetza mugiaraztea lortu dutela esan beharra dago; Eragin taldeak sare-sozialetan bisibilitate handia izan du (arrakasta handien lortutako bideoak 23,4 mila erreproduzio lortu zituen, 80.000 pertsona baino gehiagorengana heldu zena), Azpeitian apustu etheen aurka herritarren 1.636 sinadura lortu zituzten, antolatu diren manifestaldiak arrakasta izan dute, judimendiko lokala denboraldi baterako ixtea lortu zen (Olagibel kaleko apustu etxea), hitzaldietan jendetza eta kolektibo ezberdin pilatu dira, Real Sociedad futbol taldeko bazkideen %86ak apustu-etheen publizitatea elastikoetan ez jartzearen alde azaldu dira, Azpeitian bi tabernarik apustu makina kendu izan dute, Gasteizko Udalak "Gazteak eta ausazko jokoak, aurre egiteko erronka bat" izeneko txostena argitaratu zuen, Judimendiko Gazte asanbladak txosten bat garatu zuen... Kontzientziazio lana luzea baina emankorra dela dirudi eta gaiak geroz eta oihartzun handiagoa du. Hala eta guztiz ere, Eragin kolektiboak 2019. urtean aurkeztutako mozioak ez zuen nahi zen erantzuna izan (PNVk eta PSEk ez zuten gaititu) eta komunikatu bat atera zuten, non Bilboko Udalaren postura kritikatzeko zen:

“(...) Es innegable la influencia que ejerce sistemáticamente el poder económico sobre el político, y lo ocurrido el pasado jueves no es una excepción. (...) Son conocidos varios casos de buenas relaciones entre cargos del PNV y promotores de apuestas deportivas. (...) Quienes nos precarizan día tras día, quienes condenan a la juventud a la explotación laboral, a una ciudad gentrificada y terciarizada o a la imposibilidad de una vivienda digna son los mismos que han mostrado una pasividad inaceptable ante el cáncer de las casas de apuestas. “Elige diversión”, nos propone el Ayuntamiento desde un anuncio del Casino en Bilbobus. Nuestra pregunta es si también ellos continuarán divirtiéndose a costa de la juventud trabajadora de los barrios de Bilbao mientras permite a los empresarios lucrarse sobre nuestras vidas. Si va a continuar divirtiéndose dando la espalda a los problemas que sufrimos la mayoría. Nosotras nos estamos empezando a organizar para plantar cara a los problemas que el PNV no piensa resolver: academias, hostelería, casas de apuestas... Frente a la inacción y permisividad del consistorio, reivindicamos organización y acción colectivas para tratar de poner de relieve que tenemos un Ayuntamiento que no nos representa y que ni quiere ni puede garantizar soluciones” (Eragin bere webgunetik, 2019).

Mozioaren ezezkoa jaso eta horren aurka protestatzeko antolatu zen manifestaldia oso handia izan zen, herritarren feed-back handia jasoz.

Komunikabideei dagokienez, mugimendu hauek hainbat egunkari edo aldizkarien babesa izan dute, hala nola, Naiz, Argia, Uztarria, Hala bedi, Berria... El Correo egunkariak gaia jorratu zuen ere eta elkarrizketa bat egin zion Eragin taldeari, egunkariaren bi orri eskainiz. Irrati kate batzuk gaiari oihartzuna ematen lagundu dute ere (Radio Bilbao SER, Bizkaia Irratia, Euskadi irratia...). Komunikabide hauek gertaeren jarraipen bat egiten dute eta audientziak, ekintza horiekiko onarpen handiagoa izango du, hots, mugimenduak positiboki baloratuko ditu orokorrean moralki haiekin bat egingo duelako. Garrantzitsua da bitartekari hauen sostengua izatea alde batetik jende gehiagok mugimenduen berri izango duelako eta bestetik, ekintzek legitimitatea lortzen ez dutenean jaso dezaketan kriminalizazio hori alde batera utziko delako, onarpen handiagoa izanik (bitartekariak irudi ona emango diete). EiTbN apustu etheen iragarkiak debekatuak izan dira (Loteriak eta ONCE izan ezik) eta Maite Iturbek, Euskal Irrati Telebistako zuzendaria, erabakiaren asmoa honela definitu zuen; *“proteger y salvaguardar los derechos de las personas más vulnerables frente a los graves problemas de tipo adictivo que el juego y las apuestas pueden generar”* (Forner, 2019).

Nahiz eta hori aurrerapausu bat izan, bidea oraindik ere luzea dela aldarrikatu dute mugimenduek eta oraindik apustu etxeak telebistan bisibilitate handia dutela salatu dute (beste kateetan, Bilbobuseko publizitatean, kiroleetan -hala nola, eskupilotako frontoiak, futbol taldeetako patrozinatzaileak...-). Nolanahi ere, herria kontzientziatzeko lana handia eta esanguratsua izan da eta hori, gelditzeaz urrun, luzea den bidea zabalduz doa.

6. ONDORIOAK

Jokoa gaur egungo gizarte kapitalistan geroz eta handiagoa den gaitza da eta honela kritikatzeko duten lokal hauen aurka altxatu diren mugimenduek; bizitza ukatu eta etekin ekonomikoak erdigunean ipintzen dituen sistema honen berehalako aldaketa aldarrikatuz. Euskal Autonomia Erkidegoa apustuaren gastu handien duen komunitatea izanik, lurralde honetan mugimenduen sorrera premia izan da. Judimendin, Azpeitian eta Bilbon, fenomeno honen aurkako ekintzak anitzak eta indartsuak izan dira eta jendearen konfidantza izatea lortu zute, zilegitasuna eta bermea. Hala, autoritatea eta boterea izateko, legitimitatea beharrezkoa da eta gizarte mugimenduek eratu behar duten legitimitate soziala faktore psikosozialetatik dator. Mugimendu hauek "egia" edo partekatutako balioak eratu dituzten heinean, *status quo* edo indarrean dagoen sistema dominanteari zilegitasuna eta legitimitatea kentzen diote; ezin bait da sistema baten aurka altxatu sistema beraren zilegitasuna zalantzan jarri gabe. Modu honetan, aztertu diren mugimenduen legitimitate prozesua sistemaren aurkakotasunean eraiki dira, bestelako funtsezko fenomenoak kontuan hartuz; diskurtso baten eraikuntza, talde identitatea, akzio kolektiboa... Ikusi den bezala, legitimitatearen kontzeptuak ekarpen teoriko eta ikerketa anitz ditu, baina adar psikosoziala da lan honen interesa hobekien asetzen duena, nondik legitimitatearen eraikuntza sarritan landu den.

Oso garrantzitsua izango da mugimendu sozialek diskurtso bat eratea (non ideologia, protagonistak, helburuak, salaketak... definitzen diren) eta komunikazio estiloan erreparatzea (mezua nola heltzen den, bitartekariak zeintzuk diren...), mugimenduek horrekin identitate kolektibo bat eratu eta audientzia artikulatu beharrean daudelako, haien ekintzak indibidualak izatetik kolektiboak izateko eta horrela, herriaren onarpena eta horrekin datorren boterea eduki ahal izateko. Landutako hiru kasuek, zeintzuk paraleloki berdinarekin aurka borrokatzen jarraitzen duten, babes soziala eta zilegitasuna lortu dute nahiz eta instituzio edo enpresa askoren aurkaritza izan.

Gauzak horrela izanda, bertan, legitimazio eta deslegitimazio lehiak egoten jarraituko dira, autoritate eta boterea lortzeko borroka, non sistemaren legitimazioa kolokan jartzen den.

7. BIBLIOGRAFIA

Aceros, Juan C. (2010). Hunt, Benford, y Snow, (1998) Marcos de acción colectiva y campos de identidad en la construcción social de los movimientos. *Social Analyst* (Sarean eskuragarri: <https://juancaceros.wordpress.com/2010/10/01/hunt-benford-y-snow-1998-marcos-de-accion-colectiva-y-campos-de-identidad-en-la-construccion-social-de-los-movimientos/>)

Aguado, Juan Miguel (2004). *Introducción a las teorías de la comunicación y la información*. Universidad de Murcia.

Álvarez, Xosé Antón eta Nuñez, Patricia (2016). Estrategias de comunicación en las movilizaciones ciudadanas: la Marea Blanca, la Marea Verde y la movilización de Telemadrid. *Obets*, 11 (1). pp. 53-74.

Andra.eus, emakumeon ahotsak (2020). La organización juvenil Eragin se movilizará en Bilbao contra las casas de apuestas. *Andra.eus* (Sarean eskuragarri: <http://andra.eus/la-organizacion-juvenil-eragin-se-movilizara-en-bilbao-contra-las-casas-de-apuestas/>)

Anuario del Juego en España (2019). *Anuario del Juego en España. Cifras y datos socio-económicos*. Instituto de Política y Gobernanza de la Universidad Carlos III eta CEJUEGO.

Apodaka, Eduardo eta Villarreal, Mikel (2005). Acción colectiva y procesos de deslegitimación: el caso del centro de noche para drogodependientes Hontza (Bilbao). *Psicología social y problemas sociales*, Vol. 2

Apodaka, Eduardo eta Villarreal, Mikel (2008). *El poder en busca de autoridad: Las dinámicas psicosociales de la legitimización*. Editorial Club Universitario.

Arbelaitz, Lander (2018). Apustu etheen aurkako protesta egin dute Azpeitian. *Argia* (Sarean eskuragarri: <https://www.argia.eus/albiste/apustu-etheen-aurkako-protesta-egin-dute-azpeitian>)

Barroso, Concepción (2003). *Las bases sociales de la ludopatía* (Tesis doctoral). Universidad de Granada.

Bases de datos y gráficas de la Agencia Europa Press (2020). Así ha evolucionado el gasto en publicidad de las empresas de juego 'online' (Sarean eskuragarri: <https://www.epdata.es/asi-evolucionado-gasto-publicidad-empresas-juego-online/95e9b0eb-67a9-42dc-8aab-984fcb8b6581>)

Bases de datos y gráficas de la Agencia Europa Press (2020). *Juego online en España, datos y estadísticas* (Sarean eskuragarri: <https://www.epdata.es/datos/juego-online-espana-datos-estadisticas/161>)

Berria (2019). Apustu etxe bat itxi dute Gasteizen, "bizilagunen protestengatik". *Berria* (Sarean eskuragarri: <https://www.berria.eus/albisteak/171774/apustu-etxe-bat-itxi-dute-gasteizen-bizilagunen-protestengatik.htm>)

Bretones, María Trinidad (2008). *Las bases psicosociales de la comunicación*. Universitat de Barcelona.

Caja de herramientas comunitarias (datarik gabe). Sección 14. Organizar manifestaciones públicas. *Caja de herramientas comunitarias* (Sarean eskuragarri: <https://ctb.ku.edu/es/tabla-de-contenidos/abogacia/realizar-una-campana-de-accion-directa/organizar-manifestaciones-publicas/principal>)

Cárcar, Jesús Esteban (2014). Las redes y los movimientos sociales ¿una acción colectiva o marketing viral? *Icono* 14, vol. 13, pp. 125-150.

Casero, Andreu (2015). Estrategias y prácticas comunicativas del activismo político en las redes sociales en España. *Historia y Comunicación Social*, vol. 20, Núm. 2, pp. 535-550.

Cases, José Ignacio; Gómez, José Antonio; Gusano, Germán eta Lalanda, Carlos (2018). Percepción social sobre el juego de azar en España 2018. Universidad Carlos III de Madrid (Sarean eskuragarri: <https://www.infoplay.info/photos/IX%20Informe%20Percepcio%CC%81n%20social%20sobre%20el%20Juego%20de%20azar%20en%20Espan%CC%83a%202018-1.pdf>)

Chihu, Aquiles (1999). Nuevos movimientos sociales e identidades colectivas. *Iztapalapa: Revista de Ciencias Sociales y Humanidades*, N.º. 47, pp. 59-70.

Chóliz, Mariano eta Lamas, Juan (2017). “¡Hagan juego, menores!” Frecuencia de juego en menores de edad y su relación con indicadores de adicción al juego. *Revista Española de Drogodependencias*. N.º. 1, págs. 34-47.

Dartiguelongue, Eduardo B. (1995). Legalidad, legitimidad, y soberanía popular. *FACES: revista de la Facultad de Ciencias Económicas y Sociales*, pp. 103-166.

Delle, Laura (2019). El gran negocio de las apuestas deportivas, la estrella del juego ‘online’. *El País* (https://elpais.com/economia/2019/06/06/actualidad/1559841741_892391.html)

DGOJ (Coord.) (2017). *Estudio y análisis de los factores de riesgo del trastorno de juego en población clínica española*. Ministerio de Hacienda y Función Pública.

DGOJ (2018). Análisis del perfil del jugador online. *Jugarbien.es* (Sarean eskuragarri: <https://www.ordenacionjuego.es/es/informe-jugador-online>)

Ecuador Etxea (2020). El 28 de febrero del 2019 presentaron una moción en el Ayuntamiento de Bilbao, con medidas mínimas para regular a estos negocios, pero el equipo de gobierno del PNV PSE decidió no aprobarlo. *Ecuador Etxea* (Sarean eskuragarri: <https://www.ecuadoretxea.org/es-inaceptable-que-32-centros-escolares-de-bilbao-tengan-un-salon-de-juego-a-menos-de-100m-de-distancia/>)

EGBA (2019). Europe’s Online Gambling Market Grew 11% In 2018 – New Data Confirms. *European Gaming and Betting Association*. (Sarean eskuragarri: <https://www.egba.eu/news-post/europes-online-gambling-market-grew-11-in-2018-new-data-confirms/>)

Elkar-Ekin (2018). Zergatik ez dugu nahi apustu etxerik Azpeitian?. *Argia* (Sarean eskuragarri: <https://www.argia.eus/albistea/zergatik-ez-dugu-nahi-apustu-etxerik-azpeitian>)

Eragin (2019). Comunicado de Eragin Post-Moción. Eragin (Sarean eskuragarri: <https://eraginbilbo.eus/2019/03/06/comunicado-eragin-post-mocion/>)

Eragin Bilbo (2019/01/18). Eragin - Está Pasando (ETB2) - Casas de apuestas (Sarean eskuragarri: <https://www.youtube.com/watch?v=Fh1a6gn17eQ>)

Ereñaga, Amaia (2019). No va más para el juego. *Naiz* (Sarean eskuragarri: https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/7k/editions/7k_2019-12-08-06-00/hemeroteca_articles/no-v-a-mas-para-el-juego)

Escribano, Mario (2019). Migrantes, rentas bajas y pocos estudios: las correlaciones de la expansión de las casas de apuestas. *ElDiario.es* (Sarean eskuragarri: https://www.eldiario.es/economia/migrantes-estudios-correlaciones-expansion-apuestas_1_1159992.html)

Etzaniz, Maialen (2018). Igor Meltxor: "Oso garrantzitsua da herritarrak apustu etheen rolaz sentsibilizatzea". *Urola Kostako Hitza* (Sarean eskuragarri: <https://urolakosta.hitza.eus/2018/10/18/igor-meltxor-oso-garrantzitsua-da-herritarrak-apustu-etxe-en-rolaz-sentsibilizatzea/>)

Etxebeste, Joseba (2002). Aisiaren bi euskal konzeptu: jokoa eta jolasa. *Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak*, Vol. 1, pp. 277-282.

Eusko Jaurlaritz (2015). *II Libro Blanco del Juego en Euskadi*. Dirección de Juego y Espectáculos del Gobierno Vasco.

Eustat (2017). Euskal AEko batez besteko familia-errenta, errenta mota gorabehera hiriburuetan bizitoki gisa dituzten auzoak gorabehera (euro). *Euskadi.eus* (Sarean eskuragarri: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0006200/ti_Renta_familiar_media_de_la_CA_de_Euskadi_por_barrio_de_residencia_de_las_capitales_segun_tipo_de_renta_euros_2017/tbl0006266_e.html)

Fernández, José Manuel (2001). Capital simbólico, dominación y legitimidad. Las raíces weberianas de la sociología de Pierre Bourdieu. *Papers*, pp. 33-60.

Fernández, Roberto (2013). El espacio público en disputa: Manifestaciones políticas, ciudad y ciudadanía en el Chile actual. *Scientific Electronic Library Online* (Sarean eskuragarri: https://scielo.conicyt.cl/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0718-69242013000200004)

Fuentes, Catalina (2012). La verdad como estrategia de legitimación discursiva. *Discurso & Sociedad*, Vol. 6, pp. 128-155.

Forner, Gessamí (2019). EITB prohíbe la publicidad de las casas de apuestas en todos sus canales. *El Salto*. (Sarean eskuragarri: <https://www.elsaltodiario.com/casas-de-apuestas/eitb-prohibe-desde-hoy-la-publicidad-de-las-casas-de-apuestas-en-todos-sus-canales>).

Garay, Ana; Iñiguez, Lupicinio eta Martínez, Luz M^a (2005). La perspectiva discursiva en psicología social. *Subjetividad y procesos cognitivos*, pp. 105-130.

García, Carlos (2015). *El marco jurídico de los juegos de azar y la incidencia de las nuevas tecnologías* (Tesis doctoral). Universidad Complutense de Madrid.

García, Néstor (2013). Aproximación teórica al estudio de la acción colectiva de protesta y los movimientos sociales (Sarean eskuragarri: http://www.redcimas.org/wordpress/wp-content/uploads/2013/03/t_aproximacion_teorica_mmss_garcia.pdf)

García, Sergio (2019). En 2018, los vizcaínos llegaron a gastar hasta 24,6 millones en apuestas presenciales y on-line. *El Correo* (Sarean eskuragarri: <https://www.elcorreo.com/bizkaia/vizcainos-gastan-casas-20191101095927-nt.html>)

Gatón, Natxo (2019). Vitoria quiere frenar las casas de apuestas y salones de juegos. *Gasteiz Hoy* (Sarean eskuragarri: <https://www.gasteizhoy.com/casas-de-apuestas-vitoria/>)

Gómez, Luis Felipe (2019). Los movimientos sociales como actores legitimadores del acuerdo de paz con las FARC-EP. *Justicia* Vol. 24, No. 36: pp. 70-87.

González (2019). España, a la cabeza en Europa de ludópatas entre 14 y 21 años. *Diario 16* (Sarean eskuragarri: <https://diario16.com/espana-a-la-cabeza-en-europa-de-ludopatas-entre-14-y-21-anos/>)

Hala Bedi (2020). Judimendiko joko aretoaren aurkako elkarretaratzea egin zuten atzo. *Hala Bedi* (Sarean eskuragarri: <https://halabedi.eus/en/judimendiko-joko-aretoaren-aurkako-elkarretaratzea-egin-zuten-atzo/>)

Hernández, Francisco (1996). *La regulación de los juegos de azar*. Madrid: Tecnos.

Jokoaren Euskal Behatokia (2018). Decreto 147/2018, de 16 de Octubre, por el que se crea y regula el Observatorio Vasco del Juego (Sarean eskuragarri: <http://laadministracionaldia.inap.es/noticia.asp?id=1181826>)

Jokoaren Euskal Behatokia (2019). *Panorámica económico-empresarial del juego*. Jokoaren Euskal Behatokia.

Judimendiko Gazte Asanblada (2018). Auzoan joko kanpo: joko-aretoaren inguruko hainbat argipen (Sarean eskuragarri: https://issuu.com/judimendikoga/docs/auzoan_jokoz_kanpo_txostena)

Lanbide (2019). Desempleo registrado en noviembre de 2019. *Euskadi.eus* (Sarean eskuragarri: https://www.lanbide.euskadi.eus/y94-estadist/es/contenidos/estadistica/informe_paro_2019/es_def/adjuntos/11-Noviembre/Informe_Paro.pdf)

Lanbide (2019). Paro registrado por municipios, territorios y total de Euskadi durante el 2019 (resumen mensual). *Euskadi.eus* (Sarean eskuragarri: <https://www.lanbide.euskadi.eus/estadistica/paro-registrado-por-municipios-territorios-y-total-de-euskadi-durante-el-2019-resumen-mensual/y94-estadist/es/>)

Legaz, Luis (1958). Legalidad y legitimidad. *Revista de estudios políticos*. Nº 101, pp. 5-24.

Legítimo (2014). En el *Diccionario de la Real Academia Española* (23ª ed.). Madrid, España: Espasa.

López, José (2009). El concepto de legitimidad en perspectiva histórica. *Cuadernos Electrónicos de Filosofía del Derecho*. Nº. 18, pp. 153-166.

Manzano, Vicente (2005). Introducción al análisis del discurso (Sarean eskuragarri: <https://personal.us.es/vmanzano/docencia/metodos/discurso.pdf>)

Martinez, Zesar; Casado, Beatriz eta Ibarra, Pedro (2012). Jendarte-mugimenduak eta prozesu askatzaileak. *Hegoa*, 57. zbk.

Medina, Miguel Ángel (2020). El Gobierno limita de urgencia la publicidad del juego 'online' a la madrugada por el coronavirus. *El País* (Sarean eskuragarri: <https://elpais.com/espana/2020-03-31/el-gobierno-limita-de-urgencia-la-publicidad-del-juego-online-a-la-madrugada-por-el-coronavirus.html>)

Ordóñez, Esteban (2018). Apuestas deportivas: enganchados a un juego al que es imposible ganar. Madrid: *Ctxt, Contexto y acción* (Sarean eskuragarri: <https://ctxt.es/es/20180131/Politica/17516/apuestas-juego-online-epidemia-ludopatia.htm>)

Oro, Luis René (2002). *La idea de legitimidad en Max Weber, Carl Schmitt y Guglielmo Ferrero*. Boletín jurídico de la Universidad Europea de Madrid, Nº 5.

Palomar, Roberto (2020). Las apuestas deportivas se reinventan. *Marca* (Sarean eskuragarri: <https://www.marca.com/primera-plana/2020/06/21/5ee735f3268e3ea0138b4575.html>)

Pamplona, Francisco (2001). Legitimidad, Dominación y Racionalidad en Max Weber. *Economía y Sociedad*. Vol. 5, Nº. 8, pp. 187-200.

Pascual, Alfredo eta Grasso, Daniele (2019). Las salas de juego expresen los barrios pobres de Madrid: crecen un 140% desde 2014. *El Confidencial* (Sarean eskuragarri: https://www.elconfidencial.com/espana/madrid/2018-01-28/sportium-codere-luckia-salones-de-juego-ludopatia_1512360/)

Peinado, Fernando eta Catalán, Nacho (2019). Madrid tiene ocho veces más salones de juego y apuestas que Barcelona. *El País* (Sarean eskuragarri: https://elpais.com/ccaa/2019/11/12/madrid/1573587390_651290.html)

Pérez, Vicente (2019). Locales de juego y apuestas en el municipio de Madrid: distribución territorial y análisis sociodemográfico. *Asociaciones Vecinales* (Sarean eskuragarri: <https://stopcasasdeapuestas.com/static/docs/informe-locales-apuestas-fravm.pdf>)

Pérez, Verónica eta Rebón, Julián (2012). *Las vías de la acción directa*. Buenos Aires: Aurelia Rivera.

Pleyers, Geoffrey (2018). *Movimientos sociales en el siglo XXI*, Ciudad Autónoma de Buenos Aires: CLACSO.

Poblete, Claudia (2011). Estrategias de legitimación del discurso de los diputados en la Acusación Constitucional en contra de la Ministra de Educación de Chile. *Revista Signos*, vol.44 núm.76, pp. 168-182.

Rebón, Julián (2014). La legitimidad social de las formas de lucha. Una aproximación a partir de la investigación por encuesta. *OSAL Observatorio Social de América Latina*, núm. 36, pp. 193-214.

Revilla, Marisa (1994). Gobernabilidad y movimientos sociales, una relación difícil. *América latina hoy: Revista de ciencias sociales*, Vol. 8, pp. 21-26.

Roberts, John M.; Arth, Malcolm J eta Bush, Robert R. (1959). Games in Culture. *American Anthropologist*, Vol. 61, pp. 597-605.

Ruiz, Clara (2019). Países donde más se juega en casinos online y apuestas en el mundo. *Economía de hoy* (Sarean eskuragarri: <https://www.economiadehoy.es/paises-donde-mas-se-juega-en-casinos-online-y-apuestas-en-el-mundo>)

Sagado, Ion (2018). Judimendiko gazteek auzoan ireki duten joko aretoaren eragina ikertu dute. *Naiz* (Sarean eskuragarri: https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2018-09-08-07-00/hemeroteca_article/sjudimendiko-gazteek-auzoan-ireki-duten-joko-aretoaren-eragina-ikertu-dute)

Sánchez, Luis Javier (2019). El sector del juego alcanzó 9.870 millones € en 2018 pero sigue por debajo de los años previos a la última crisis. *Conflegal* (Sarean eskuragarri: <https://conflegal.com/20191101-el-sector-del-juego-alcanzo-9-870-millones-e-en-2018-pero-sigue-por-debajo-de-los-anos-previos-a-la-ultima-crisis/>)

Santasusana, Montserrat Vilà eta Castellà, Josep M. (2014). 10 Ideas Clave. Enseñar la competencia oral en clase: Aprender a hablar en público. Vol. 22, EDITORIAL GRAO.

Serrano, Enrique (1994). *Legitimación y racionalización: Weber y Habermas, la dimensión normativa de un orden secularizado*. Barcelona, España: Universidad Autónoma Metropolitana.

Sevilla Buitrago, Álvaro (2014). Espacio público y protesta ciudadana: reflexiones sobre la espacialidad del 15M. *"Madrid. Materia de debate"*. *Club de Debates Urbanos*, pp. 208-218.

Stekelenburg, Jacquelin eta Klandermand, Bert (2013). The Social Psychology of Protest. *Current Sociology*, pp. 886-905.

Torner, Jon (2018). Jokoa normalizatzea, apustu arriskutsua. *Argia* (Sarean eskuragarri: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2615/jokoa-normalizatzea-apustu-arriskutsua>)

Uztarria (2018). Apustu etheen kontrako borroka ez du etenik. *Uztarria*. (<https://uztarria.eus/azpeitia/1544901983-apustu-etxeen-kontrako-borroka-etz-etenik>)

Uztarria (2018). Apustu etxea Azpeitian "soberan" dagoela salatu dute herritarrek, haren inaugurazioan. *Uztarria* (<https://uztarria.eus/azpeitia/1540978977285-apustu-etxea-azpeitian-soberan-dagoela-salatu-dute-herritarrek-haren-inaugurazioan>)

Van Dijk, Teun A. (2000). *El discurso como interacción social*. Barcelona, España: Editorial Gedisa.

Vitoria-Gasteizko Udala (2015). Informe de Población de Vitoria-Gasteiz por barrios. *Gabinete de Estudios* (Sarean eskuragarri: <https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/92/89/59289.pdf>)

Vitoria-Gasteizko Udala (2017). Informe de Población Vitoria-Gasteiz 2017/ Movimientos demográficos 2016. *Gabinete de Estudios* (Sarean eskuragarri: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/11/81/71181.pdf>)

Vitoria-Gasteizko Udala (2018). Informe de Población 2018/ Movimientos demográficos 2017. *Gabinete de Estudios* (Sarean eskuragarri: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/10/29/81029.pdf>)